

ESKOLA-KIROLA: ESTEREOTIPOETAN OINARRITZEN JARRAITZEN DUGU?

GRADU AMAIERAKO LANA



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Egilea: Uribarri Rivas, Garazi

Tutorea: Vizcarra Morales, María Teresa

LABURPENA

Ikerketa honen helburua ,genero-ikuspegi batetik, neskek eta mutilek eskola kirola esparruan dituzten jokabideak eta bizipenak aztertzea da. Ikerketa hau, hezkuntza ez formalean garatzen da, hain zuzen Gasteizko igeriketa club batean. Ikerketa honen xedea; sistema patriarkalak eta haren idealek, kirolari gazteek dituzten portaeretan eta balioetan zenbateraino eragiten duten ezagutzea da. Azterlanak 10 nesken eta 8 mutilen lagin batek osatzen du, eta elkarrizketa dela medio galdeketa bat egin da. Ondoren, 2 eztabaida talde egin dira. Horretarako 4 talde-elkarrizketa eta 2 talde-eztabaida egin dira. Elkarrizketa eta eztabaida hauetatik, haien portaerak, jarrerak eta gaitasun fisikoak nola pertzibitzen dituzten ezagutu nahi izan dira. Emaitez patriarkatuak gaur egun gure hezkuntza-kulturan arrastoak uzten dituela eta hezkidetzako iraultza baten falta dagoela erakusten dute.

- **HITZ-GAKOAK:** Generoa, estereotipoak, eskola-kirola, gaitasun fisikoak, hezkuntza, patriarkatua, hezkidetzak.

RESUMEN

El objetivo de esta investigación es analizar las conductas y vivencias de chicas y chicos en el ámbito del deporte escolar desde una perspectiva de género. Esta investigación se desarrolla en la educación no formal, concretamente en un club de natación de Vitoria-Gasteiz. La finalidad de esta investigación es conocer hasta qué punto el sistema patriarcal y sus ideales influyen en los comportamientos y valores de los jóvenes deportistas. El estudio está compuesto por una muestra de 10 chicas y 8 chicos a los que se les ha realizado un cuestionario mediante una entrevista. Posteriormente se han realizado 2 grupos de discusión. Para ello se han efectuado; 4 entrevistas grupales y 2 debates grupales. De estos diálogos y debates se pretende conocer cómo perciben sus comportamientos, actitudes y aptitudes físicas. Los resultados muestran la huella que el patriarcado deja hoy en día en nuestra cultura educativa y a su vez, falta una revolución coeducativa.

- **PALABRAS CLAVE:** Género, estereotipos, deporte escolar, capacidades físicas, educación, patriarcado, coeducación.

ABSTRACT

The aim of this research is to analyse the behaviour and experiences of girls and boys in school sports' field. This research is carried out in non-formal education, specifically in a swimming club in Vitoria-Gasteiz. The purpose of the research is to find out to what extent the patriarchal system and its ideals influence in the behaviour and values of young athletes. The study is made up of a sample of 10 girls and 8 boys who were given a questionnaire by means of an interview. Two discussion groups were subsequently held. For this purpose, 4 group interviews and 2 group discussions were carried out. From these dialogues and debates, the aim was to find out how they perceive their behaviour, attitudes and physical abilities. The results show the mark that the patriarchy leaves today in our educational culture and at the same time, the lack of a co-educational revolution.

- **KEY WORDS:** Gender, stereotypes, school sport, physical abilities, education, patriarchy, coeducation.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	1
2.	MARKO TEORIKOA	2
2.1.	SEXUA ETA GENEROA	2
2.1.1.	NOLA ERAIKITZEN DA SISTEMA BITARRA?	4
2.1.1.1.	FAMILIA.....	5
2.1.1.2.	ESKOLA	5
2.1.1.3.	HEDABIDEAK	6
2.1.1.4.	JOSTAILUAK.....	6
2.1.1.5.	BERDINEN TALDEAK.....	7
2.1.1.	GIZARTEAK ERAIKITAKO ESTEREOTIPOAK	7
2.1.1.1.	MASKULINITATEA.....	7
2.1.1.2.	FEMINITATEA.....	8
2.2.	KIROLEN GENERO-PERSPEKTIBA HEZKUNTZA PROZESUAN.....	8
2.2.1.	ESKOLA-KIROLA.....	10
2.3.	GARAPEN MOTORREN MAILA ETA ESTEREOTIPOEN AURREIRITZIAK	11
3.	HELBURUAK.....	12
4.	METODOA.....	13
4.1.	PROZESUA	13
4.2.	DISEINUA	14
4.3.	PARTAIDEAK	15
4.4.	INFORMAZIOA JASOTZEKO TRESNAK.....	15
4.5.	INFORMAZIOA BILTZEKO JARRAITU DEN PROZEDURA	15
4.6.	INFORMAZIOA ANALIZATZEKO PROZEDURA.....	16
4.6.1.	KODEAK ETA KATEGORIAK	16
4.6.2.	KATEGORIZAZIO EMERGENTEAK:	18
4.6.3.	TRINKOTZEA.....	19
4.6.4.	BERRANTOLAKETA.....	19
4.6.5.	SEGMENTAZIOA.....	20
5.	EMAITZAK.....	20
5.1.	ZEIN IZANGO LITZATEKE UMEEN NORBERAREKIKO IRUDIA?	20
5.2.	ZERTAN OINARRITZEN DUTE IGERILARIEK LEHIAKETARAKO ERAGINKORTASUNA?.....	23
5.3.	ZEIN HARREMAN MOTA HAUTEMATEN DIRA IGERIKETA TALDEAN? ...	25
5.4.	ZEINTZUK DIRA UMEEN ERREFERENTEAK?	26
5.5.	HAURRENTZAT OINARRIZKO GAITASUN FISIKOEN ARTEAN ZEINEK DU GARRANTZI HANDIAGOA?.....	27
6.	EZTABAIDA ETA ONDORIOAK.....	30
7.	ETORKIZUNEN ILDOA.....	35
8.	BIBLIOGRAFIA.....	37
9.	ERANSKINAK.....	45
9.1.	I. ERANSKINA: GALDETEGIA	45
9.2.	II. ERANSKINA: BAIMEN GUTUNA	46
9.3.	III. ERANSKINA: BERRANTOLAKETA.....	48

IRUDI AURKIBIDEA

IRUDIA 1: Estereotipoekin identifikatzen diren ala ez jakiteko aurkeztutako irudiak....	21
IRUDIA 2: Argazkiekin identifikazioa sexula.....	22
IRUDIA 3: Lehiakortasunaren eraginkortasuna sexuaren arabera.....	24
IRUDIA 4: Lidergoa sexuala.....	25
IRUDIA 5: Genero diskriminazioak bizi dituzten.....	26
IRUDIA 6: Igerilarien erreferenteak.....	27
IRUDIA 7: Kaleen okupazioa igerilekuan.....	28
IRUDIA 8: Sexuaren arabera zein uste duten azkarragoa dela galdetzean eman dituzten erantzunak.....	29
IRUDIA 9: Sexuaren arabera zein uste duten indartsuagoa dela galdetzean eman dituzten erantzunak.....	30

TAULA AURKIBIDEA

TAULA 1: Gradu Amaierako Lanaren kronograma	13
TAULA 2: Proposatutako lehenengo sistema kategoriala (edo analisi-tresna)	18
TAULA 3: Trinkotutako sistema kategoriala.....	19

1. SARRERA

Jakin-minez eta kuriositatez betetako neska hiperaktibo bat izateak betidanik desberdin sentiarazi ninduen. Mundu honetako desberdin sentitzen diren neska gazte gehienak bezala, arrazoia edozein dela ere. Neure burua desberdin ikustearen ondorioa abiapuntua izan da lan honetan. Berdintasunarekin dudan sentsibilizazioa, nire burua heteronormatik kanpo ikustea, izan da lan hau egiteko eragilea.

Badirudi estereotipoek eta gizarteak esaten digutela zein jostailu mota erabili behar ditugun, zer nolako sentimenduak izan behar ditugun, zeintzuk izan behar diren gure ezaugarriak –fisikoak zein mentala-, zein izan behar den gure izaera, gure jarrera, gure portaera, gure JOKABIDEA, zein izan behar den gure janzkera, zeintzuk izan behar diren garatu beharreko konpetentziak... Espektatibak. Jaio baino lehen gure gain ezartzen direnak. Askotan, sistema patriarkalak ezarritako dogmak, gure beharrak, interesak, aukerak eta desioak ukatzen ditu. Hau da, gure identitatearen askatasuna giza konstruktua baten menpe egotea ekartzen du, eta ez bakarrik identitatea, identitate batek komunitate batean dakarren guztia, gure bizitzeko baldintzak, alegia.

Halaber, indarkeria sinbolikoa, bizitzako edozein esparruren subjektuen kontrolaren jabe da. Botere sinboliko honek, ikuspegi dikotomikoa du pentsaera bitarra garatzen: ona/txarra, egokia/desegokia, normala/arraroa, ondo/txarto, polita/itsusia... *neska/mutila* (Beatriz Ugarte, Maria Luisa Otaduy eta Make Irigoyen, 2018)¹. Kultura eta balore transmisioa jendarte bateko alorrik garrantzitsuena eta kezagarriena izan daiteke. Transmisio honek bi helburu ditu: batetik komunitate bateko kide berrien sozializazioa bermatzea eta bestetik, baloreak mantentzea etorkizuneko jendartearen baliozkoa izan dadin. Transmisio prozesu honi *hezkuntza* deritzo. Baina ez al da beharrezkoa sozializazio prozesua genero-mugetatik aske izatea?

¹ Jakin badakigu APA arauak autoreen lehen abizena jartzea eskatzen dutela, baina teoria feministek emakumeei bisibilitatea emateko ikerlarien izen propioak jartzea komenigarria dela esaten dute, bai testuan zehar bai bibliografian.

Mendez mende eraikitako horri guda deklarazioa egiteko momentua heldu zaio, hori da, hezkuntza morez janzteko momentua heldu da. Genero-analisia ezinbestekoa da hezkuntza hezkidetzaila eraikitzeko, hots, pertsona askeak eraikitzeko. Eta hori da hain zuzen, estereotipo sexistei desafiatzea. Gorputz Hezkuntza (GH) tradizionala hezkuntza sistema osoa bezala, ikuspegi andozentrista batean oinarritu da. Are eta gehiago kompetentzia motorra; dikotomia horretan oinarritu da. Jendarte honetan, indarrak eta erresistentzia gaitasunak (gizonezkoei atxikitutako atributuak), malgutasuna, gorputz plastikotasuna, oreka eta prezisioa bezalako gaitasunak (emakumezkoei atxikitutakoak) baino presentzia gehiago dute. Nolabait gizonen gaitasuntzat goraiatzatzen dira, emakumearen gaitasunak eta praktika fisikoak devaluatzen.

Hitz hauekin aurkezten den Gradu Amaierako Lanaren garapena honako hau izango da: lehenik eta behin, ikerketa inguratzen duen marko teorikoa aztertuko da; sexua eta generoa, kirolen genero perspektiba hezkuntza prozesuan eta Lehen Hezkuntzako umeen garapen psikomotorra inguratzen duen alor teorikoaz hitz egingo da. Ondoren, ikerketaren helburuak zehaztuko dira. Helburuei jarraituz, ikerketa egin ahal izateko metodoa azaltzen da. Segidan, burututako ikerketaren emaitzak eta hauen eztabaida zein ondorioak aurkeztuko dira. Eta azkenik, ikerketak utzi duen etorkizuneko ildoaz hitz egingo da.

2. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, estereotipoen eraikuntzan parte-hartzen duten hainbat elementu aztertuko dira. Elementu hauek banaka hartu eta bata bestearekin erlazionatuko dira gure azterketa errazteko funtsarekin.

2.1. SEXUA ETA GENEROA

Sexu terminoa gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasun anatomiko eta fisiologikoak adierazteko erabiltzen da (Mari Luz Esteban, 1998), hots, aspektu biologikoetan oinarritutako erreferentzia da (Ann Oakley, 2016). American Psychological Association-ek (2011), sexu biologikoa zehazten duten zenbait adierazle aipatzen ditu, hala nola: kromosomak, gonadak, ugalketa organoak eta genitalak. Aldiz, Amaia Álvarezek (2013) terminoari ikuspegi zabalago bat ematen dio:

Biologikoki eta mentalki desberdinak eta elkarrekiko baztertzailak diren bi sexuen aldeko defentsa XVIII. mendetik zetorren baina mende oso bat pasatu behar izan zen teoria hegemoniko gisa onartua izateko. Teoria horren helburua gizon eta emakumeen arteko parekidetasun eza arrazionalizatzea zen, desberdintasun hori natural bihurtuz eta ahalik eta gehien gorpuztuz. (114. orr.)

Generoa ordea, jendarteak sortutako eredu bat da, eta maskulinoa edo femeninoa da, eta estereotipoen adierazleak dira (Beatriz Ugarte et al-, 2018). Generoa garapen- edo bilakaera-prozesuan zehar eratzen da, hots, kulturala da (Euskal Herriko Bilgune Feministak, 2014). Beraz, pertsonak horretan heziak dira, baina aldi berean bakoitzaren nortasunean, zein kultural-nortasunean oso errotuta dagoen ikuspegia da. Generoaren bitartez, pertsonak bi taldetan sailka daitezke, eta sailkapen hori sakon aztertu beharreko fenomeno da (Lola Ferreiro, 2007). Nahiz eta sexu-genero kontzeptuak teorikoki ezberdinu, bi kontzeptuak elkarlotuta daude. Izan ere, ez gara ar edo eme, gizon edo emakume, baizik eta autoidentifikazioan biak sartzen dira (Marina Subirats eta Amparo Tomé, 2007).

Genero identitatea; pertsonaren funtsezko zentzu barneratuan, gizon edo emakume sentitzearen esperientzia psikologikoari deritza. Normalean, zentzu hau 3 urterekin definitzen da eta orokorrean sexu -biologikoarekin- bat dator (Alberto Bardi, Carolina Leyton, Vania Martínez eta Electra Gonzalez, 2005). Aurretiaz aipatu bezala genero identitatea ez du zertan sexu biologikoarekin bat etorri behar. Genero identitatea, sexu-genero sistema baten pean eraiki da non aspektu sozialak, kulturalak eta moralak zuzenean eragiten duten. Esan daiteke, genero-identitatearen onarpena sistemaren oinarria izan daitekeela. Sexu-genero sistemak suposatzen du, sexua (biologikoa) generoarekin (kulturalarekin) derrigorrez lotuta egon behar dela. Beraz, gizonek zein emakumeek euren maskulinitate zein feminitate ezaugarrietara erantzun behar dute. Honen ondorio larriena da, gizon-emakumeei euren bizi-programa inposatzen zaiela (Isabel Martinez eta Amparo Bonilla, 1999). Horrela, Gayle Rubinek, 1975. urtean, *Sexu-genero sistema* kontzeptua asmatu zuen honela definituz:

Jendarte batek sexualitate biologikoa giza jardueraren produktu bihurtzeko bideak, hots, bereizketan oinarritutako harreman sozialek sexua eta ugalketa sistema bihurtzen dituzte, gizon-emakumeentzako betebeharrak eta eskubide desberdinak hitzarmen sozial bilakatuz. Desberdintasun biologikoetatik abiatuta, botere harremanetan egituratutako egitura sozialak daudela ikasten dugu generoak

jendartea antolatzen duelako, eta egunerokotasunean gizon-emakumeen arteko hartu emanak antolatzen ditu. (160. orr.)

Sexu-genero sistema honek, genero identitatetan antolatutako komunitatea ekarri du, hori da, genero identitate baten eraikuntza sistematiko bat ekarri du.

2.1.1. NOLA ERAIKITZEN DA SISTEMA BITARRA?

1789tik, *Gizonaren* Eskubidea demokrazia modernoaren ikurra da². Giza Eskubideak, gizon eta emakumeen arteko baldintza generiko eta euren harreman sozialak apurtzeko ahaleginetatik agertzen dira. Halaber, Estatu berrantolaketa batetik hasita, ikuspegi kulturalen berrizapenera eramango duen ahalegina da. Humanitatea horrela planteatuta; trantsizioa, zapalkuntza patriarkala eta demokrazia generikoaren eraikuntza jasotzen duen idatzia izan zitekeen (Marcela Lagarde, 1997). Hala ere, 231 urte beranduago, gure jendarteak legeen bidez berdintasuna, askatasuna eta autonomia printzipioak onartu arren, ez dira egungo emakume eta gizonen jarrera eta jokabideetan hain argi ikusten (Carlos Lomas, 2004).

Gaur egun, paradigma kultural berri baten aurrean gaude genero kategorizazioen alternatibak aurkezten dituen. Komunitatearen osaera berri hau bi printzipio desberdinetatik jaiotzen da: giza aniztasuna eta desberdinen parekotasuna (Marcela Lagarde, 1997). Alabaina, ideia zaharrak ez dira hiltzen: humanitatearen gizon-emakume zatiketa gehienetan ikuspegi naturalizat izaten jarraitzen du. Historian zehar, sistema genero-aniztasunaren deuseztapen soziala justifikatzeko beti "natura"-ri heldu zaio (Peter Murphy, 2004). Hala ere, naturak ezarritako dikotomia horrek sistema osatzen duen beste eremuetara plazaratu da, non banakoaren hezkuntza eta identitate eraikuntza prozesuan artezki eragiten duen. Genero identitate erreferente edo eredu hauek, hainbat bidetik jasotzen dira, hala nola: familia, eskola, hedabideak, jostailuak, berdinen taldeak...

² Eleonor Roosevelt-ek mende eta erdi beranduago Giza Eskubideak nominalizatu zituen (1948an).

2.1.2. FAMILIA

Gurasoek esangura zuzena dute euren seme-alaben genero identitate eraikuntzan, izan ere, egunerokoan hurrekin etengabeko interakzioan daude. Hori dela eta, harreman horietan, haiengatik espero diren jarrera eta desira ereduak sustatzen dira (Maria del Carmen Rodríguez eta José Vicente, 2003). Hurrek familian ikasitako ereduak erreproduzitzen dituzte (Felix López, 1984), izan ere, familia haur baten hazkuntza, zaintza eta sozializazioaz arduratzen den erakunde nagusia da (Alba Nidia Triana, Liliana Ávila eta Alfredo Malagón, 2010). Ohiko familietan, neska edo mutil bat jaio baino lehen, berehalako desberdintze prozesua jasaten dute (Amparo Tomè, 1996). Desberdintasun hori, aurretik aipatutako espektatibekin lotuta dago. Espektatiba horiek betetzen ez badira, haurren feminitatea edo maskulinitatea kolokan jartzen dira (Peter Murphy, 2004).

Hala ere, gaur egungo familia ereduak aldatzen ari dira (Nora Cebotarev, 2003). Aldaketa hauen aitzindariak 1978ko Konstituzioa eta 1981ko Kode Zibila ditugu (Lucía Iribarren, 2010), izan ere, ezkontza eta parentalitate harremanek eta sexuen arteko berdintasun bermeez aldaketak ekarri zituzten. Orohar, aldaketak eremu honetan eman dira: amodio eta bikote erlazioen kontzepzio berrietan; patriarkatuak filosofiaz aldatzeko egindako saiakeretan, emakumearekiko askatasun, autonomia eta negoziazio puntuetan –oraindik ere nahikoak ez direnak-; emakumea lan-inguruan sartzea, rol sozialen aldaketa; eta dibortzio eta banaketan areagotze esanguratsua (Nora Cebotarev, 2003).

2.1.2.1. ESKOLA

Eskolak ere, gizarte eta hezkuntza erakundea den aldetik, emakumeek eta gizonek bereganatzen dituzten portaera-ereduen prestakuntza-prozesuan eginkizun garrantzitsua du (Emilia Moreno, 2000). Izan ere, nahiz eta neskak eta mutilak batera eskolaratu, hezkuntza-prozesua eredu maskulino hegemoniko batetik burutzen da. "Guztion eskola" lehenik eta behin gizonen eskola izan da (Anna Piussi, 1997). Beraz, beharrezkoa da, eskolak bi generoen sexu-identitatea eta balioespen soziala eraikitzekeo prozesuak betetzen duen eginkizun garrantzitsuaz jabetzea.

2.1.2.2. HEDABIDEAK

Hedabideek, berriz, familiak sartu eta eskolak indartzen duen sexuaren araberako irudikapen sozialak sendotzen dituzte (June Fernandez, Lucía Martínez eta Pablo Vidal, 2014). Horiek ez dira mugatzen errealitate sozialaren isla izatera, baizik eta, modu sotil eta zeharkakoan, errealitate soziala eratzten laguntzen dute (Emilia Moreno, 2000).

Komunikabideetan emakumearen irudian, emakumeen errealitate sozialarekiko argi eta garbi eredu atzerakoiak diren paperak transmititzen dira. Telebista-programetan rol femeninoa definitzeak funtzio ideologikoa du: irudi femeninoa mantentzea eta, batez ere, ugalketaren eta etxeko produkzioaren esparruari lotuta egotea. Publizitateak portaera-eredu sexistak indartzen ditu. Horiek, konbentzionalismo ikonografiko eta linguistiko batzuetan oinarritzen dira, zeintzuk publizitate-diskurtsoaren ekintza pedagogiko ikusgarriaren parte diren (Miguel Angel Santos, et al., 2000)

Bestalde, duela gutxi arte, komunikabideak gizonez beteta zeuden, ez da XX. mendearen erdialdera arte emakumeak agertzen hasi zirela. Baina gizonei botere eta ospe handiko kazetaritza karguak ematen zitzaizkien bitartean, emakumeak propagandarako objektu sinbolikoa ziren. XX. mendearen erdialdean, emakumeek jada komunikabideak konkistatuta zituzten; bai kazetaritzan, bai publizitatean. Horrela gertatzen da gizonekin ere. Gizonezkoak protagonista diren publizitateak estereotipo maskulinoak ere markatzen ditu. Gizon guztiak berdinak dira: ez dute negarrik egiten, familiaren erreferentea dira, familiaren esparru publikoaren jabe, indartsuak dira, bortitzak eta sentimendurik gabekoak (Lucía Martínez, 2009). Hala ere, hedabideak oso tresna boteretsua izan daitezke (Emilia Moreno, 2000); bai patroi estereotipatu mingarriak sortzeko (Lucía Martínez, 2009), zein estereotipo horiek apurtzen saiatzeko (Miguel Santos, et al., 2000).

2.1.2.1. JOSTAILUAK

Jolastea haurren zeregin bat eta ez denbora-pasa soila da. Euren garapenerako funtsezko beharra da alegia, horregatik nazioarteko araudiek, haurren oinarritzko eskubidea dela aitortzen dute (Arantza Chacón, Josu Oskoz eta Bernardo Garcia, 2009). Bizitzaren lehenengo hilabetetan zein urteetan, haurrek beren gorputzarekin zein inguruan dituzten objektuekin jolastu eta elkar eragiten dute; eta hala, euren inguruaz ohartzten dira. Umeak jolasten ari direla, euren gaitasun kognitiboak, emozionalak, fisikoak eta sozialak garatzen ari dira. Baina jendarte honetan jostailuak

androzentrismoa eta genero-binarismoan egituratukoak dira. Jostailuek sexua dute, eta neutro bezala azalduak baldin badira maskulinoztat hartuko dira, eta osagarriak erabiliko dira femeninoak direla desberdintzeko (June Fernandez et al., 2014). Modu honetan, mutilen joko-jolas zein jostailuek, abenturarekiko grina, indarra eta sentimenduen ukapen bultzatuko dute, aldiz, neskenak, zaintzara eta amatasunera bideratuta daude (Carlos Lomas, 2004). Beraz, jolasa umeen garapen eta sozializazioan hain boteretsua izanda, haurrek sexu-genero sistemarekiko dituzten aurreiritziak identitatea eraikitzerakoan eragina argia da (Viviana Chicaiza, 2015).

2.1.2.2. BERDINEN TALDEAK

Umeen sozializazio esparruetan (eskola, eskola-kirola, eskola kanpoko ekintzak, etab.) gizonen eta emakumeen esleitutako rol tradizioaletan hezita daudela adierazten duten jarrerak eta portaerak ikusten ditugu. Rol horiek gizonen emakumeek baino balioeste handiagoa dutela agerian uzten dute, eta, kasu batzuetan, mendekotasun-egoera batera iristen dira. Egoera hauek, emakumearekiko errespeturik eza eta kulturaren duten bazterketan eragiten du (Miguel Santos, et al., 2000). Bestalde, gaur egun aniztasunean oinarritutako hezkuntza-sistema baten partaideak gara. Beraz, hori dela eta, euskal kulturatik at dauden emakumearekiko ikuspegi baloreak ezartzen dira. Euskal tradizioan emakumeek jasotako errespetua beste kulturekin talka egiten du (Joseba Etxebeste, 2006). Kasu askotan, beste kulturetan egondako emakumearen ikuspegia, euskal hezkuntza sisteman antzematen da. Balore berri hauen ezarpenak berdinen arteko harremanetan eragin du sexuen arteko botere harremanak gehiago indartuz (María Martínez, 2010).

2.1.1. GIZARTEAK ERAIKITAKO ESTEREOTIPOAK

Azaldutako genero-identitate sistemak jokabide estereotipatu batzuk ezarri ditu. Jokabide horiek, haurren jokabidean maskulinitatean edo feminitatean oinarritzen diren espektatiba batzuk sortzen dituzte:

2.1.1.1. MASKULINITATEA

Maskulinitatea ulertzeko abiapuntua, genero-sistemak osatzen duten gizarte-harremanak dira. Maskulinitatearen jokabide nagusietako bat, gizonak emakumeak menderatzearen bidez laguntzen direla esan daiteke (Judith Butler, 1990). Maskulinitatearen bereizketa, psikologikoa da: gizonak diren eta gizon bihurtzen diren

pertsona-motari dagokiona. Baina ez da psikologikoa soilik. Zentzu berean, instituzionala da, praktika kolektiboaren alderdi bat alegia (Peter Murphy, 2004). Maskulinitate hegemoniko baten definizioak, emakumeen aurkako barrikadak mantentzeaz gain, gizon batzuk bazterten edo menderatzen ditu. Ondorioz, maskulinitatea erakundeen dinamikan eta familien funtzionamenduan, gizabanakoen nortasunean bezain errotuta dagoela uste da (Jokin Azpiazu, 2012). Maskulinitateari esleitutako ezaugarri orokorrak, hala nola, objektibotasunak eta arrazionaltasunak, aurretik aipatutako emakumearen menderatzea ekartzen du. Zentzu zabalean aplikatuta, botereak, baita ere; sentimenduen, emozioen eta behar afektiboen kontrola ekartzen du. Modu honetan, besteen gaineko domeinua eta kontrola galdu ez dezaten (Michael Kaufman, 1994).

2.1.1.2. FEMINITATEA

Feminitateaz hitz egiten dugunean, genero femeninoaren idealizazioaz hitz egiten ari gara. Feminitatea, gizarteak emakumearekiko duen pertzepziorako ikuspegia da alegia (Betty Friedan, 2017). Ikuspegi honek, aurretiaz aipatu diren genero-sistemak ezarritako ezaugarriak jarraituko ditu. Halaber, tradizionalki eraikitako ikuspegi misoginoak; amaren eginbeharra, oinarri laikoen gain duin bihurtu eta amatasunaren arteko erabateko identifikazioa, bultzatzen du feminitateak (Nerea Aresti, 2002). Feminitatearen kontzepzio honek emakumeen arteko konpromisoa eta emakumeek beren jendartean aktiboki parte-hartzea oztopatu egiten du (Friedan Betty, 2017).

2.2. KIROLLEN GENERO-PERSPEKTIBA HEZKUNTZA PROZESUAN

Aski frogatua dago bizimodu aktibo eta osasungarriak ezartzeko eta helduaroan irauteko ohiturak adin gazteetan eskuratu behar direla (Melchor Gutiérrez, 2004). Beraz, fenomeno hori bermatu dadin gorputz-hezkuntza eta eskola-kirolaren testuinguruak ezinbestekoak dira. Hala ere, nahiz eta kirolak zein jarduera fisikoak etorkizunari begira umeei abantaila anitz eman, genero-identitate sistemak bere eragina ere islatzen du. Estereotipoek jendarteko sinesmen-ereduak markatzen dituzten lez, haurrengan jarduera fisikoan eta kirolean garatutako harreman-jokabideak baita ere markatzen dituzte (Julia Blández, Emilia Fernández eta Miguel Angel Sierra, 2007).

Genero-estereotipoak, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako genero-desberdintasunen mantenua faktore desberdinen menpe dago. Hala nola; faktore pertsonalak, portaera faktoreak eta inguruneko faktoreak (Julia Blández, et al., 2007). Beraz, *kultura soziala* funtsezko ardatz bat dela esan daiteke. Zehazki, harremanen irudi estereotipatuak eta umeen kirol parte-hartzearen balore transmisioan, kulturak ezinbesteko eragina izango du (Emilia Fernández, Onofre Contreras, Fernando Sánchez-Bañuelos, César Fernández-Quevedo, 2011).

Jarduera fisikoaren eta estereotipoen ikerkuntzan oinarritako bi ezaugarri identifikatzen dira: ezaugarri instrumentalak (maskulinatearekin elkarlotuak) eta ezaugarri afektibo-espresiboak (femenitatearekin elkarlotuak). Ikuspegi hori rol aktiboen esleipen tradizionalarekin bat dator, hurrenez urren: mundua eraginkortasunez manipulatu dezakeen pertsona baten garapena (mutila) eta besteen mesedetarako dena ematen duen pertsona baten garapena (neska) (Mary Crawford eta Rhoda Unger, 2004). Ondorioz, gizon fisikoki aktiboa eta emakume fisikoki pasiboaren tipologia bideratzen da (Emilia Fernández et al., 2011). Hala ere, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin erlazionatutako estereotipo horiek eboluzio txiki bat jasan dute praktika tradizionalatik salto txiki bat emanez (Graciela Infesta y Sandra Edith, 2009). Alabaina, kirol-estereotipo horiek mutilengan neskengan baino eragin gehiago izaten jarraitzen dute, batez ere praktikak lehiakortasun kutsu bat baldin badu (Emilia Fernández et al., 2011). Lehia egotea edo ez egotea hezkuntza prozesuaren parte izan daiteke, betiere protagonisten portaerak eta jarrerak elkarrekiko errespetutik, elkarrizketatik eta negoziatutik eraikitzen badira (Ana Rosa Jaqueira, Pere Lavega, Francisco Lagardera, Paulo Araujo eta Mario Rodriguez, 2014). Nazio Batuek bakearen kulturaren garapenaren laugarren puntuak beharrezkotzat jotzen du: "emakumearen aurkako diskriminazio eta indarkeria mota guztiak desagerraraztea sustatzea, baita beharra duten emakumeei babesa eta laguntza ematea ere...". (United Nations, 1999, Resolution a/53/243), genero-ekitatearen gaur egungo garrantzia zehazten (Ana Rosa Jaquera et al., 2014).

José Devísek (1995) kirola hezkuntza eremuan aplikatzeko zenbait aldaketen beharra adierazi ditu. Aldaketa-proposamen horien helburua kirolak benetan zentzu-hezitzailea edukitzea eta genero-ekitatea bermatzea da. Aldaketa horiek honako eremu hauetan eragin behar dute;

- Ikasleek kirolean garaipenari eta emaitzari ematen dioten garrantzi soziala gutxitzea.

- Lehiaketa, partaidetzari lotutako balio bakar gisa ulertzea, izaera estetiko eta taktikoen beste balio batzuk ahaztea.
- Kirolean sor daitezkeen norgehiagokaz, lehiakortasunaz eta oldarkortasunaz, balio moral jakin batzuen aurka doazenak, hala nola; lankidetzaz, esperientzia positiboa, errespetua edo berdintasunaren inguruan hausnartzea.
- Kirolak gure gizartean duen erabilera politiko, ideologiko eta ekonomikoa ahaztea.

2.2.1. ESKOLA-KIROLA

Gaur egungo umeei zein gazteek, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin harremanetan jartzeko bide anitz dituzte. Esplorazio fisiko honetan eragin gehien izan dezakeen entitatea, hezkuntza-sistemak bideratzen duen Gorputz-Hezkuntza edo Heziketa fisikoa daukagu. Hala ere, bigarren maila batean, eskola-kirola izan dezakegu, zeinek kultura-fisikoarekiko afiliazio handiago bat ekarri dezakeen. Umeei eskola-kirolaren partaide izatea aukeratzen dute, horregatik jarduera fisiko zehatz baten praktika nahia edo konpromisoa Gorputz Hezkuntzakoa baino altuagoa izan daiteke. Eskola-kirola, itxuraz sinplea dirudien terminoa izanez, eztabaida ekar dezaken kontzeptua izan daiteke, batez ere, ikuspegi pedagogikotik egiten badugu. Izan ere, eskola-kirolaren barruan prozesu edo ikuspegi desberdinak egon daitezke, hala nola: kirol-hastapena eta eskola-kirola artean. *Eskola-kirola*, lehenik eta behin eta zentzu mugatuan, eskolaren toki-esparruan garatzen den kirol eta jarduera fisiko motari egiten dio erreferentzia (Domingo Blázquez eta Fernando Amador, 1995). Bigarrenik, eta zentzu zabalean, eskola-adineko haur eta gazteek ikastetxe barruan eta kanpoan egiten duten kirol-jarduera fisiko orori deritzo. Baita klubetan edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen eremuan egiten dena izan daiteke (Iñaki Ortuzar, 2006). Beraz, eskola-kirola "eskola-adineko kirolaren" sinonimotzat hartzen da. Bestalde, *kirol-hastapena*, tradizionalki, haurra kirol baten edo batzuen praktika modu espezifikoan ikasten hasten den aldia bezala ezagutzen da (Domingo Blázquez eta Fernando Amador, 1995), eta ez kirol-eskolan jardutea.

Eskola-kirola soilik jarduera fisikotzat ezin dugu hartu, izan ere, elementu kulturalak eta pertsonalak identifikatzeko esparru bat ere bada. Halaber, kirol-eremuan eta kirol-eremutik kanpo garatzen den jarduera da, horregatik sozializazio fenomeno baten barne sailkatu dezakegu (José Devís, 1995). Sozializazio prozesu oro bezala, momentuan bizitako ezaugarri historiko-sozialen menpe garatuko da. Modu honetan,

aurretiaz aipatu diren genero-estereotipoen sinesmenen eraginak pairatuko dira (Julia Blández, et alt., 2007).

Halaber, hainbat autorek eskola-kirolari kirol tradizionalaren balore intrintsekoak atxikitzen dizkiote eta hauek kritikatu egiten dituzte. Lehiakortasuna, espezializazioa, genero-dikotomia, errendimendu hobea lortzea, etab. hezkuntza-munduarentzat eta espreski hezkidetzarentzat baliagarri ez diren baloreak eskuragarri egiten ditu. Generoan oinarritutako lehia-ikuspegia aztertzerakoan, neskek lehia jarduerari eta irabazteari mutilek baino garrantzi txikiagoa ematen diote. Are eta gehiago, euren interesak taldean ospetsuak izatearen beharrari erantzuten diote. Halaber, interes handiagoa erakusten diote parte-hartzeari zein ikasketa teknikoari, emaitza onak lortzeari baino (Antonio Fraile eta Raul Diego, 2006).

Kirol-egituretan nagusi den kultura maskulinoak, emakumeen parte-hartze aktiboa zailtzen du. Emakumeen praktika moduak ez dira ondo ulertzen gizonen artean. Nesken jokabideak desberdintzat antzematen dira, eta kasu askotan ez dira baloratzen. Hori dela eta, neskek baliarazi egin behar dira eta gizonezkoen mundu honetan bere lekua egin behar dute (Nuria Puig. Benilde Vazquez-en, 2002). Laburbilduz, eskola-kirolean emandako joerak, umeez inguratzen duten jendartearen isla da. José Devisek (1995) esan bezala; bereziki, merkatu lehiakorreko (sistema kapitalista) jendarte bati erantzuten dion komunitate baten adiera da.

2.3. GARAPEN MOTORREN MAILA ETA ESTEREOTIPOEN AURREIRITZIAK

Garapenez hitz egiten dugunean, ume bat jaiotzen denetik hiltzen den arte gertatzen diren aldaketa biologiko eta psikologikoen multzoari egiten zaio erreferentzia (Rafael Padilla, 2009). Garapenean eragiten duten faktore hereditarioen barne, ezaugarri sexualak aurkitu ditzakegu. Ezaugarri sexuak, sexu maskulinoaren eta femeninoaren arteko hazkunde eta garapenean ezberdintasunak finkatzen ditu; oro har, mutilak gehiago hazten direla, eta neskek, berriz, lehenago ematen dela onartzen da (Emilio Viera, 2008). Haurren garapen motorrean ezaugarri sexuak zuzeneko eragina dute.

Lehen Hezkuntzako etapan, umeen maila motorrean aurrerapen handiak ematen dira. Bai gorputzaren ezagutzan eta kontrolean, bai trebetasunetan (pertzeptibo-

motorrak, oinarrizkoak, generikoak eta espezifikoak) eta baita ere oinarrizko gaitasun fisikoetan (indarra, malgutasuna, erresistentzia eta abiadura) (Rafael Padilla, 2009).

Gure lana, gehien bat, Lehen Hezkuntzako haurren oinarrizko gaitasun eta habilezia fisikoen azterketan eta hauei lotutako estereotipoetan zentratzen da. Beraz honetan ardaztuz, Gema Torres, Elisabeth Carpio, Amador Lara eta M^a Luisa Zagalaz-en (2014) esanetan, adin honetako, oinarrizko gaitasun fisikoak aztertzerakoan, bi generoen arteko gaitasun fisiko bereizgarriena potentzia izan daitekeela, mutilena altuagoa izanez. Halaber, malgutasunean baita ere desberdintasuna bermatzen da, oraingoan, maila hobea neskena izanez. Lisimaco Vallejo-k (2002) adierazten du, abiadura eta erresistentziari dagokionez, 12 urtera arte, neskek mutilek baino balio hobek lortzen dituztela. Adin horretatik aurrera, balioak alderantzikatu egiten dira, eta mutilek balio hobek lortzen dituzte. Honekin lotuta, Felix Guillén eta Montserrat Ramírez-en (2011) esanetan, mutilek euren autokontzeptu eta pertzepzioan, neskek baino indartsuago aitortzen dira. Josune Rodríguez-Negro eta Javier Yanciren (2019) esanetan, trebetasun motor batzuetan, 9-11 urte bitarteko haurren artean, badirudi generoa faktore bereizlea dela. Neskek oreka estatikoan gaitasun handiagoa dute, eta mutilek berriz, antzemate eta norabide aldaketen trebetasunetan. Hala ere, aipatutako autoreek, oreka dinamikoari eta orientazio-trebetasunari dagokienez ez dituzte genero-desberdintasunik aurkitu.

3. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honen helburuak honako hauek dira:

- Igerilari gazteek genero eta praktika inguruko dituzten bizipenak ezagutzea.
- Nesken autopertzepzioa aztertzea eta mutilen autopertzepzioarekin erkatzea.
- Taldean emandako harremanak baiestea.
- Genero perspektibatik neska-mutilen etorkizuneko proiektzioak arakatzea.

Laburbilduz, historia, zientzia eta esperientzia bere baitan, sexuen arteko jarrera eta portaera bortitzak (batez ere emakumearenganako) baieztatzeko oinarri nagusiak dira. Fenomeno honen arrazoi nagusia, elkarren arteko (gizon-emakume) ez-jakintasuna da; izan ere, gizartean ezarritako genero dikotomia honek elkar ez ezagutzea ekarri du (Jesus Barrio, 2019). Horregatik, lan honetan genero ikuspegi baten posizioa hartzeko saiakera egiten da proposatutako helburuak aztertuz.

4. METODOA

4.1. PROZESUA

Lan hau irailaren azkeneko astean nire tutorea eta biok hasi genuen prozesu bat da (taula1).

Taula 1: Gradu Amaierako Lanaren kronograma

DATA	ZEREGINA
2019-09-18	GRAL-aren esleipena.
2019-09-26	Tutorearekin batzarra.
2019-09-30	Gaiaren zehaztapena eta tutorearekin akordioa.
2019-10-01	Zerbitzu-hezkuntza taldearekin batzarra.
2019-10-05	GRAL-aren gerturapena: Brainstorming-a. Errebisio bibliografikoa, artikulu eta liburuen pilaketa. Behin-behineko helburuak, metodoa eta tresnak zehaztu.
2019-11-01	Marko teorikoaren saiakera amaitu.
2019-11-02	Behin-behineko helburuak, metodoa eta tresnak zehaztu.
2019-11-03	Esku-hartzea diseinatu.
2019-11-07	Feedback-a jaso eta GRAL-aren ibilbide berria ezarri.
2019-11-29	Elkarrizketak burutu.
2019-12-04	Marko Teorikoa osatu.
2019-12-07	Elkarrizketak transkribatu.
2019-12-17	Marko teorikoaren feedback-a jaso.
2020-01-28	Informazioaren analisisa osatzeko jarraibideak jaso.
2020-03-31	Sistema-kategoriala aurrera eraman.
2020-04-10	Behin-behineko metodoa idatzi.
2020-04-11	Behin-behineko emaitzak aztertu eta idatzi.
2020-04-12	Behin-behineko eztabaida eta ondorioak idatzi.
2020-04-14	Behin-behineko etorkizuneko ildoak idatzi.

4.2. DISEINUA

Helburuak lortzeko, umeen testigantzak ezagutzea beharrezkoa iruditzen zitzaidan. Beraz, testigantza horiek lortzeko elkarrizketan oinarritu nuen nire lana. Burututako elkarrizketek hainbat datu kualitatibo bilketa ekarri zituzten (Julio Meneses eta David Rodriguez, 2011). Elkarrizketak, normalean, pertsoneri egindako galderetan oinarritzen dira. Elkarrizketa galdeketa pertsonal eta zuzen bat da, helburu jakin batekin alegia: pertsonari buruzko informazioa lortzea. Informazioa, elkarrizketatuak esandakoaz aparte, haren jarreratik ere lortzen da.

Proposatutako lanean, talde-elkarrizketa erdi-egituratua eta ez-zuzendua egin zen (Francisco Javier Gala, 2018). Hiru elkarrizketa-mota proposatu ziren: neska taldeari egindako talde-elkarrizketa (2 egin ziren), mutil talderi egindako talde-elkarrizketa (2 egin ziren) eta talde-elkarrizketa horietan oinarritutako eztabaida, non neskek eta mutilek parte-hartu zuten (2 egin ziren). Talde-elkarrizketak eta eztabaidak aurrera eramateko, oinarri gisa elkarrizketa-gidoi bera erabili zen. Genero-talde desberdinen erantzunak eta erreakzioak erkatu ziren, eta ondoren eztabaidan hartutako posizioak, ideiak eta erantzunak baita ere aztertu ziren. Talde-elkarrizketak bi txandetan burutu ziren, lau talde-elkarrizketa egiten:

- 1. txandan: 10 ume parte-hartuko dute, 5 neska eta 5 mutil.
- 2. txandan: 10 ume parte-hartuko dute; 5 neska eta 5 mutil.

Talde-elkarrizketak, 5 hurrez osatutako taldeekin bideratuko ziren, hori da; 5 neska (N) eta 5 mutil (M). Ondoren, eztabaida bi taldeak batuz aurrera eraman zen; 10 igerilariekin (5N-5M). Talde antolamendu honek xede bat zuen, hain zuzen, generoan oinarritutako banaketan, haien artean zeuden ideiak ez nahastea. Era berean, haurren erosotasuna eta konfiantza bilatu nahi zen, azken finean euren ideiak adierazteko beldurra kentzea lortu nahi zen. Bestalde, eztabaidan, talde bakoitzak hartutako posizioak erkatu ziren.

Unean-uneko egoerak direla eta, elkarrizketa zitazioan 2 mutil gutxiago etorri ziren. Honek suposatu zuen elkarrizketak 5 neska eta 4 mutil osatzea, eta eztabaidak 9 haur (5N-4M). Laburbilduz, 6 elkarrizketa desberdin burutu ziren eta bakoitzean lortutako informazioa bildu, kudeatu, erkatu eta ondorioak atera ziren.

4.3. PARTAIDEAK

Arabako Igeriketa Elkarte bateko Alebin (11-12 urte, 6. maila) taldeaz baliatu nintzen. Elkarrizketatu taldea 18 igerilarik osatzen zuten, 10 neska eta 8 mutil alegia. Aurretiaz aipatu den bezala, hasierako planteamendua 20 igerilarik osatzen zuten, baina azkenengo momentuko gorabeherak direla eta, soilik 18 igerilarik parte hartu zuten. Nahiz eta igeriketa entrenamenduak joera mistoa izan, genero estereotipoak oso markatuak daude. Kirol honen munduan jarrera matxistak, emakumearen gorputzaren sexualizazioa, estetika femenino markatua, garapen fisiko eta sexualaren begi bistako agerraldiak eta gorputzaren uneoroko erakusketak oso ohikoak dira, eta horrek genero eta identitate desberdinen arteko bizikidetasuna asko kaltetzen du. Esan beharra dago, kirol elkartean askotariko ideologiak aurki daitezkeela igerilarien artean.

4.4. INFORMAZIOA JASOTZEKO TRESNAK

Informazioa jasotzeko tresna, aurretiaz esan bezala, talde-elkarrizketarako eta eztabaidetarako elkarrizketa-gidoi (I. eranskina) batean oinarritu zen. Gidoia, irekia eta norabide anitzekoa izan zen (Cristina Moral, 2006). Halaber, igerilari gazteen erantzunak gordetzeko mugikorraren ahots-grabagailua erabili zen. Elkarrizketa bakoitzak bere grabazio propioa zeukan, ondoren grabazio guztiak transkribatu ziren eta emaitzetan 6 taldetako ahotsak agertuko dira.

4.5. INFORMAZIOA BILTZEKO JARRAITU DEN PROZEDURA

Datu bilketa aurrera eraman ahal izateko urrats ordenatu batzuk burutu behar izan ziren:

1. Igeriketa elkarteko entrenatzaile eta zuzendariei proposamena aurkeztu.
2. Igerilariekin hitz egin.
3. Entrenatzaileekin eguna adostu.
4. Guraso eta tutoreei baimena gutuna helarazi (II. eranskina).
5. Sinatutako baimena gutunak jaso.
6. Umeak taldekatu.
7. Elkarrizketak burutu.
8. Elkarrizketak grabatu.
9. Elkarrizketak transkribatu eta horien analisisa egin.

4.6. INFORMAZIOA ANALIZATZEKO PROZEDURA

Informazioa analizatzeko lehenengo aukera NVivo software-a erabiltzea izan zen. Hala ere, COVID-19-k sortutako krisialdi-globala dela eta, beste analisi baliabide batzuk bilatu behar izan ziren. Arazoaren aurrean, eduki-analisia eginda, tresna digital bat erabili ordez testu prozesatzaile bat erabili da. Eduki-analisi guztietan bezala analisi-tresna “**Sistema-kategoriala**” izan da. Sistema-kategorial horrek, analisi kualitatiboak burutzea bideratzen digu, baliagarria baita testuak sailkatzeko eta emaitzen diskurtsoa antolatzen. Hala, informazioa bildu ondoren, informazioaren analisia eta informazioaren interpretazioa zein aurkezpena egiteko aukera ematen zigun (Mariate Bizkarra, 2020).

Sistema-kategoriala martxan jartzeko, lehenik eta behin zenbait kontzeptu argi izan behar ditugu. Hala nola; *Dimentsioak* ezartzea eta *eduki-analisia* egitea, elkarrekiko baztertzailak diren esanahiak identifikatzen datza. Kontzeptu baten garrantziaren neurria, zuzenean edo zeharka erlazionatuta dauden faktoreen kopuruaren bidez azter daitezke (Eduardo Escalante, 2009). Bestalde, *Kategoriak* ezarri behar dira. Kategoriak balio edota aukera desberdinak dira termino edo adierazpen bat modu argian sailkatzeko, kontzeptualizatzeko edo kodetzeko. Aukera horietan, aztertu beharreko elementu bakoitza (analisi-unitateak) sailkatuko dira. Esan beharra dago, gure azterlanean, analisi unitateak paragrafoak izan direla (Ikus: 5. EMAITZAK puntua). Azkenik, behar izatekotan, *Azpikategoriak* ezarri beharko lirateke. Esan liteke azpikategoriak sailkatzeko modu bat direla, eta hortik beste analisi-unitate txikiago batzuk eratortzen direla (Cristina Romero, 2005). Burututako analisisian honako **pausu hauek** jarraitu ziren: informazioa ordenatu edo kodeak jarri, testua kategorizatu kategorizazio emergente baten bidez, kategorizazioa trinkotzea, emaitzak berrantolatzea, segmentazioa egitea eta interpretazioa egitea.

4.6.1. KODEAK ETA KATEGORIAK

Taldeak ordenatzeko erabilitako kodeak eta haien esanahia honako hauek izan dira:

- (ET-N-1.taldea): *ET*: elkarriketa taldea - *N*: neska taldea - *1. taldea*: elkarriketatua izan den lehenengo taldea.

- (ET-M-2.taldea): *ET*: elkarrizketa taldea - *M*: mutil taldea - *2. taldea*: elkarrizketatua izan den bigarren taldea.
- (EZT-NM-1.eta 2. taldea): *EZT*: eztabaida taldea - *NM*: neska-mutil taldea - *1. eta 2. taldea*: elkarrizketatuak izan diren lehenengo eta bigarren taldeak.
- (ET-N-3.taldea): *ET*: elkarrizketa taldea - *N*: neska taldea - *3. taldea*: elkarrizketatua izan den hirugarren taldea.
- (ET-M-4.taldea): *ET*: elkarrizketa taldea - *M*: mutil taldea - *2. taldea*: elkarrizketatua izan den laugarren taldea.
- (EZT-NM-3.eta 4. taldea): *EZT*: eztabaida taldea - *NM*: neska-mutil taldea - *3. eta 4. taldea*: elkarrizketatuak izan diren hirugarren eta laugarren taldeak

Aldiz, *informazioa* ordenatzeko erabilitako kategoriak ondorengoak dira:

- Autopertzepzioa - Etorkizun aukerak - Generoa berdintasuna
- Autopertzepzioa - Gorputz irudi estereotipatuak.
- Autopertzepzioa - Lehiakiortasuna
- Erreferenteak - Generoa - Ingurua
- Harremana (lidergoa) - Boterea - Generoa
- Harremanak - Genero diskriminazioa
- Lehiaketarako eraginkortasuna - Estereotipoen indarra - Errelebo mota
- OGF – Abiadura
- OGF – Indarra

4.6.2. KATEGORIZAZIO EMERGENTEA:

Dimentsio eta kategorien lehenengo abiapuntua kategorizazio emergente bat izan zen eta hala sistema kategoriala eboluzionatzen joan zen, irekia egon delako. Lan honen kasuan Taula 2-an ikus daiteke proposatutako lehenengo Sistema-kategoriala.

Taula 2: Proposatutako lehenengo sistema kategoriala (edo analisi-tresna)

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK
ARRAKASTA	Estereotipoen indarra	Errelebo mixtoak
		Errelebo maskulinoak
		Errelebo femeninoak
	OGF	Azkarrena
		Oreka/Parte-hartzea
Adiskidetasuna/balorazio pertsonala		
AUTOPERTZEPZIOA	Gorputz irudi estereotipoak	1. irudia: Mutil indartsua
		2. irudia: Neska fina, argala, sexualizatua
		3. irudia: Mutil ahula
		4. irudia: Neska indartsua
	OGF propioen balioespena	Azkarragoak
		Indartsuagoak
	Lehiakortasuna	Teknika
		Espezializazioa
		Neskak
		Mutilak
ERREFERENTEAK	Ingurune hurbilean	
	Mundialak	
ETORKIZUNEN AUKERAK	Aukera berdintasuna	Generoa
HARREMANAK	Lidergoa	
	Botere harremanak	
	Genero diskriminazioa	
BESTE GENEROAREKIKO BALIOSPENA	Errendimendua	
	Soziala	

4.6.3. TRINKOTZEA

Analisiaren prozedura honetan, lehendik aipatutako kategoriak agrupatzen dira, hori da, kategoriak sinplifikatzen dira. Topikoak konglomeratu handiagoetan lotzea bilatzen da, abstrakzio eta ulermen maila handiagokoak. Horretarako, aurretik eraikitakoa berriro eraiki behar izan zen, horrela multzo eta konexio intertopiko koherenteak sortzea errazago bihurtuko zen (Genoveva Echevarría, 2005). Prozesu honen ostean erabilitako Sistema-kategoriala Taula 3-an laburbiltzen da.

Taula 3: Trinkotutako sistema kategoriala.

DIMENTSIOA	KATEGORIA	SUBKATEGORIA
AUTOPERTZEPZIOA	Lehiakortasuna	
	Gorputz irudi estereotipatuak	
	Etorkizuneko aukerak	Generoa
LEHIAKETARAKO ERAGINKORTASUNA	Estereotipoen indarra	Errelebo mota
HARREMANAK	Lidergo motak	Generoa
	Botere harremanak	
	Genero diskriminazioa	
ERREFERENTEAK	Inguru hurbilekoak	
	Mundialak	
OGF	Abiadura	
	Indarra	

4.6.4. BERRANTOLAKETA

Atal honetan, sailkatutako materiala irakurri, berrantolatu eta interpretatuko da. Ditugun erantzun edo ahots guztiak, testu batean bilduko dira. Paragrafoak jada ez dira antolatu jaso ziren bezala, baizik eta hainbat tresnen bidez jasotako material guztiak ordenatzen dira. Sistema kategorialak markatzen duen ordena jarraituta, ideiak laburtu eta interpretazioak egin dira (Mariate Bizkarra, 2020). Bestalde, azterketa datuen prebalentzia ezarriko da, orden logiko bat ezarrita (III. eranskina).

4.6.5. SEGMENTAZIOA

Azkenik, *Segmentazioa* burutuko da. Segmentazioan datu guztiak unitatetan bereiztean datza. Hainbat dira segmentazioa egiteko moduak: Gaien arabera (elkarrizketan lantzen ziren galderei edo alderdiei erantzuteko), parte-hartzaileen ezaugarrien arabera (parte-hartu duten pertsonak edo taldeak oinarri gisa hartuta), unitate gramatikaleen arabera (esaldiak edo paragrafoak), narrazioaren denbora edo bilakaeraren arabera, edo horietako batzuk konbinatuta. Funtsean etapa hau deskribatzailea eta sailkapenezkoa da. "Zer esaten duten gai jakin bati buruz" aztertzen da, bai zuzenean galdetutako gaia bazen, bai berez sortu den gaia bazen (Josep De Andrés, 2000). Azken finean, analisiaren atal honetan aztertutako gaiak diskurtso koherente baten bitartez komunikatu nahi da.

5. EMAITZAK

Laneko atal honetan emaitzak adierazten dira eta hauek dimentsio hauen inguruan antolatuak izan dira: identitate pertsonala, lehiaketarako eraginkortasuna, harreman motak, erreferenteak eta oinarrizko gaitasun fisiko adierazgarrienak.

5.1. ZEIN IZANGO LITZATEKE UMEEN NORBERAREKIKO IRUDIA?


Autopertzepzio alorra aztertzerako momentuan, ikertzeko hiru kategoria azaltzen zaizkigu: *lehiakortasuna*, *gorputz irudi estereotipoak* eta *etorkizuneko aukerak*.

Lehiakortasunari begira, galdetutako ume orok ezetza ematen dute irabazteak gainontzeko kideekiko gailentasuna sentiarazten diela. Hau da, lehiakortasunak ez du euren autiestimuan edo egoan eragiten, izan ere, behin haiek irabazi dezakete eta besteetan gainontzekoek onartzen dute. Bestalde, argi dute, irabazteak nork bere burua gaitzitzea duela helburu, eta ez besteen gainetik geratzea:

N: irabazi diegu y ya, hor gelditzen da (ET-N-1.taldea).

M: zuk behin irabazi dezakezu, baina hurrengo baten berak irabazi ahal zaitu, beraz, ez (ET-M-4.taldea)

Gorputz irudi estereotipoen emaitza azterketa egiterakoan kontuan izan behar dugu 18 igerilari elkarrizketatuak izan direla. Alor hau aztertzeko galdetzen genuen aurkeztutako zein irudiarekin identifikatzen ziren.



Irudia 1: Estereotipoekin identifikatzen diren ala ez jakiteko aurkeztutako irudiak

Horietako bi mutilek 1. irudiarekin erlazionatu zuten euren gorputza, gorputz polita zutelakoan argudiatuta. Beste 7 emakumek, 2. irudiarekin erlazionatzen dute euren gorputza. Nesken artean 6 igerilarik 2. irudia aukeratu zuten, emakumearen beste irudiarekin (4. irudiarekin) ez zirelako identifikatuta sentitzen. Haien hitzetan irudian agertutako emakumearen gorputza profesional batena da, eta horiek ez ziren biotipo horrekin identifikatzen:

N1: es imposible tener ese cuerpazo. N2: nire gorputza ez delako hainbeste aldatuko. N3: 4. Igerilaria profesionala delako eta gu ez. Tiene musculazos (ET-N-1.taldea).

N4: 2. Ni bezala neska delako eta ez dirudi beste neska bezain profesionala (ET-N-3.taldea).

Bestalde, zazpi emakumeetako batek 2.irudiko neska oso “guapa” iruditzen zaiola esaten du eta berarekin identifikatzen da:

N1: 2. irudia zeren ez dut uste hain fuertea izango naizenik eta irudiko neska oso fina eta guapa da (ET-N-3.taldea).

3. irudiari dagokionez, 5 igerilari mutilek aukeratu dute. Bi igerilari besterik ez dira gai euren aukera argudiatzeko. Alde batetik, igerilari batek argazkian agertutako pertsonaiaren poztasunarekin identifikatzen da; bere izaera oso alai delakoan dago eta horregatik hura aukeratu du:

M1: 3. Oso pozik eta guay ikusten naizelako. (ET-M-4.taldea).

Bestetik, beste igerilari batek ez dela inorekin identifikatuta sentitzen onartzen du, baina bat aukeratu behar duenez, 3. irudia aukeratu du.


M1: Zintzotasunez, ez naiz identifikatzen irudi hauekin. Baina bat aukeratzekotan 3. izango litzateke. Asko hobetu dezaket eta sariak irabazi (ET-M-4.taldea).

Hala, 4. irudia, mutil batek eta hiru neskek aukeratu dute. Mutilak, biotipo muskulatu bat ikusterakoan irudiko pertsonaia ez du neskatzat hartu:

M1: 4. Irudia (ET-M-2.taldea).

Bestalde, beste hiru neskek, irudian agertutako emakumearen gorputza esfortzuarekin erlazionatzen dute, izan ere, irudian haien ustez, igerilari profesional bat ikusten da.

N1: 4. Irudia. Esfortzua eginez gero argazkikoa bezain azkar igeri egin dezaket. N2: 4. Irudia. Orain bezain gogotsu entrenatzen jarraitzen badut oso indartsua bihurtuko naiz. N3: 4. Irudia. Esfortzu handiarekin nahi dudak tokira helduko naizelako irudiko neska hori bezala. (ET-N-3.taldea)



Irudia 2: argazkiekin identifikazioa sexula.

Etorkizuneko aukerei dagokionez (galdetzen genuen nola ikusten ziren geroan), igerilariek etorkizunean ez dituzte euren generoan oinarritutako oztoporik ikusten. Hala ere, eztabaida talde batean, EZT-NM-3.eta 4. taldean alegia, ideia desberdinak aitortu dira. Mutil batek, gizonezkoek indar fisiko gehiago dutela aipatu du, eta hori dela eta, errazagoa daukatela marka pertsonalak hobetzea. Bestalde, beste neska batek, mutilen denbora minimoak³ zailagoak direla eta horregatik denbora hobeak egiteko presio gehiago dutela aitortzen du. Hala ere, hirugarren mutil batek, bere hitzekin eztabaidan berriz ere berdintasuna bermatu nahi izan du:

M1: Bakoitzak bere markak ditu, eta batzuk gauza batzuetan hobeak izango dira eta beste batzuk besteetan (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Gertaera hori azpimarratzekoa da, izan ere, genero talde berdineko elkarrizketetan ideia hauek ez dira azalera atera, baina bi generoekin osatutako eztabaida taldeetan bai. Hasiera batean, ez dituzte euren etorkizunean bide desberdin posiblek ikusten, baina gero bi generoak aurrez-aurre egon direnean, batzuk (bi igerilarik) bai.

5.2. ZERTAN OINARRITZEN DUTE IGERILARIEK LEHIAKETARAKO ERAGINKORTASUNA?

Kirolari askorentzat, lehiaketaren eraginkortasuna irabaztea da. Horretarako, igerilariei haientzat lehiarako eraginkorren den errelebo bat osatzeko aukera eman zaie. 18 igerilaritik eta horien ondoriozko 18 errelebotik, 9 neskek errelebo misto bat osatu dute. Errelebo mistoa eratu duen neska batek, osatutako erreleboa “irabazteko” osatu duela aipatu du, baina, gaitasun teknikoak⁴ kontuan hartu behar izanez gero, beste bat osatuko zuela aitortzen du. Bestalde, bi neskek bere erabakian zintzo sinesten dutela aitortzen dute, izan ere, haien ikuspegiaren arabera osatutako errelebo misto horrek benetan taldeko azkarrena dela diote. Beste hiru neskek, osatutako erreleboan agian mutilek

³ Denbora minimoak: Txapelketa batean parte-hartzeko egin beharreko denbora minimo bat.

⁴ Gaitasun teknikoak: Teknika eta estilo on batekin igeri egitea. Eskola-kirolean teknikaren alor kualitatiboak garrantzia handia hartzen du.


haiekin erkatuz abiadura pixka bat altuagoa dutela aipatzen dute. 8 mutilek, errelebo maskulino bat osatu dute. Errelebo maskulinoak osatu duen igerilari batek, errelebo misto bat osatzearen beharragatik galdetzen du. Behin ezezkoa jasota, errelebo maskulinoa eratu du. Errelebuak txapelketetan nolakoak izan behar diren galdetzean horrelako erantzunak jaso ditugu:

M1: Mistoa izan behar du? (Nire erantzuna: EZ). M1: Adrian, Gonzalo, Alejandro eta ni (ET-M-1.taldea)

Bestalde, eztabaida talde batean, hots EZT-NM-1.eta 2. Taldean, mutilak azkarragoak direla aitortu dute eta horregatik, errelebo maskulino bat osatu dute. Aldiz, eztabaida talde berean, neska-taldeak errelebo mistoen alde aldarrikapen bat egin du, igerilari guztien abiadura antzekoa dela argudiatuz.

M: azkarrenak direlako. N: denok (partaideak) antzeko abiadura dutelako. (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

Azkenik, 2 neska errelebo femenino bat osatu dute. Erreleboa osatzerakoan emandako argudioa adiskidetasunean oinarritzen da; haien lagun minak direnez, hauek aukeratu dituztela diote.




Irudia 3: Lehiakortasunaren eraginkortasuna sexuaren arabera.

Aipatu beharra dago, jarrera eta jokabide desberdinak ematen direla elkarrizketetan zein eztabaida taldeetan. Eztabaida taldeetan mutilek, euren erabakietan sinisten jarraitzen dute, aldiz, neskek ez. Neskei, lotsa/beldurra/uzkurtzea, ematen die euren ideiak azaltzea, hau da; euren gaitasunak onartzea eta ozenean aitortzea.

5.3. ZEIN HARREMAN MOTA HAUTEMATEN DIRA IGERIKETA TALDEAN?

Harremanak aztertzerakoan, faktore desberdinak aztertu nahi izan dira. Alde batetik, talde batean eman daitezkeen *lidergoak*, bestetik, talde batean eman daitezke *botere* harremanak eta azkenik igerilarien *genero-diskriminazio* bizipen posibleak aztertzea.

Lidergoari dagokionez, igerilarien erantzun gehienak mutil bati egiten diote erreferentzia (taldeko liderra zein den galdetzen zitzaien). Honek suposatzen du, taldeko liderra figura maskulino bat izatea. Mutil bati erreferentzia egiten dioten erantzunak bai neskengandik, zein mutilengandik emanda daude. Hala ere, 3 ahots, neska baten izena aipatzen dute. 3 ahots hauetatik 2 neskak dira, eta hirugarrena bere arrebari egiten dio erreferentzia:



Irudia 4: Lidergoa sexuala.

M1: ¡Mi hermana! (Ezt-NM-3. eta 4. taldea).

Botere harremani dagokionez, nesken erantzunek airean uzten zuten mutilek taldean duten nolabaiteko boterea (igerilekuko kaleen orden antolaketaz galdetzen zitzaien). Nesken hitzetan, mutilak ez diete haien aurretik pasatzen uzten, aldiz, nesken artean arazo hori ez da existitzen:


N1: batzuk ez. N2: batzuetan mutil honek ez digu uzten. N3: Niri mutil honek ez. N4: segun ze mutil ez digu pasatzen uzten. (Nire interbentzioa): eta neskak? Aho batez: bai. (ET-N-1. taldea)

Bestalde, mutil batzuen erantzunak oso neutroak izan dira, hori da, igerilekuko kaleen ordena modu demokratiko batean erabakitzen dela aitortzen dute. Erantzun horiek, taldean lidergo bat daukaten igerilariak ematen dituzte. Bestalde, mutil talde txiki batek, igerilekuko kaleen ordena ezartzeko orduan mutilen artean gatazkak daudela onartzen du. Halaber, baita ere onartzen dute, gatazka horiek ez direla neskekin ematen.

M1: Segun zer egin behar dugun, gure artean adosten dugu. Norbait ona baldin bada distantzia luzeetan eta igeri egin beharrekoa luzea bada, berak tira egingo du. (ET-M-2. taldea)

M2: Bueeeeno, gure artean mutilak gehiago "pikatzen" gara. M3: Lehiakorrakoak gara eta batzuetan arazoak ditugu. (ET-M-4.taldea)

Genero-diskriminazioarekin zerikusia duten bizipenak aztertzerakoan, igerilari guztiek ezezko borobila adierazi dute egoera horien bizipenaren aurrean. Hala ere, igerilari neska batek publikoki ezezko erantzuna eman du, baina hasiera batean bere gorputz-komunikazioak baieztatu erantzuna eman du. Zehazki, buruarekin baietz esan du, eta gainontzeko taldekideen erantzuna ikusterakoan, ozenean ezetz esan du.




Irudia 5: Genero diskriminazioak bizi dituzten.

5.4. ZEINTZUK DIRA UMEEN ERREFERENTEAK?

Erreferenteak aztertzerako momentuan, *ingurune hurbilekoak* eta erreferente *mundialak* aztertu ditugu. Bai hurbileko zein mundu mailako erreferenteak izendatzerako momentuan gizon izenak entzun dira. Joera hori bai nesken artean zein mutilen artean eman da. *Ingurune hurbileko* erreferente bat aitortzerakoan, igeriketa club-eko nagusi maskulino batek presentzia gehiena izan du. Ondoren, elkarrizketatzailearengatik feedback-a edo estimulu berri bat jasotzerakoan, aukera sorta ireki dute eta beste igerilari zein entrenatzaile femeninoen izenak aipatu dituzte. Erreferente *mundialei* dagokionez, Michael Phelps izena aipatu dute. Beste behin, elkarrizketatzailearengatik estimulua jasotzerakoan, Mireia Belmonte aipatu dute. Azken puntu hau oso adierazgarria da, izan ere, Mireia Belmonte haiengandik hurbilago dagoen kirolaria da, geografikoki zein kronologikoki. Belmontek, Phelps bezain arrakasta du eta hala ere, ez da haien lehenengo erantzuna izan.

NM (Aho batez): Michael Phelps. (Nire interbentzioa: Katinka Hoszu-k Phelps bezain ona da eh!) NM: Nor da hori?... N1: Eta Mireia Belmonte. (EZT-NM-3.eta 4. taldea)




Irudia 6: Igerilarien erreferenteak.

5.5. HAURRENTZAT OINARRIZKO GAITASUN FISIKOEN ARTEAN ZEINEK DU GARRANTZI HANDIAGOA?

Oinarrizko gaitasun fisikoak (OGF) oinarri gisa hartuta, kulturalki gaitasun batzuk beste batzuk baino balioespen sozial gehiago dute, eta are eta gehiago, umeen artean. Halaber, OGF batzuen garapena edo nagusitasuna genero bakoitzari esleitu zaio. Hori dela eta, atal honetan, neska-mutilek *abiaduraren* eta *indarraren* balioespen presentzia aztertu nahi izan da. *Abiadura* aztertzerako momentuan igerilekuko kaleetan mantendu beharreko ordenari erreparatzen zaio. Jokabide desberdinak antzematen dira elkarrizketetan- eta eztabaida-taldean. Elkarrizketa taldeetan, neska talde batek, hots ET-N-1.taldeak, orden hau ez dela *abiaduraren* baitan ezartzen baizik eta espezializazioaren baitan, aitortzen dute. Euren burua askotan lehenengoak jartzen dute. Hala ere, beste neska taldeak, ET-N-3.taldeak, kaleko lehenengoak azkarrenak izan behar direla aipatzen dute. Aldiz mutilek, *abiaduran* zentratzen dira, hau da; azkarrenak lehenengoak izan behar direla, eta azkarrenak mutilak direla esaten dute. Bestalde, EZT-NM-1.eta 2. taldean, neskek zintzotasunez onartzen dute haiek askotan lehenengoak doazela; aldiz, mutilek euren erantzuna aldatzen dute. Eztabaida-taldean neskak mutilak baino azkarragoak izan ahal direla eta kalean lehenengoak joan ahal direla onartzen dute, hau da, generoak ez duela *abiaduran* eraginik. Bestalde, EZT-NM-

3. eta 4. eztabaida-taldean, ahots desberdinak bi generoen abiadura gaitasuna baloratzen dute:

M1: Azkarrenak, markarik onenak dituztenak. M2: mutilak. M3: Badaude neska asko irabazten gaituztenak.




Irudia 7: Kaleen okupazioa igerilekuan.

Igerilariei zuzenean nesken eta mutilen abiadurak erkatzea eskatzen zaienean, elkarrizketa eta eztabaida taldeen arabera jokabide desberdinak ematen dira.

Elkarrizketa taldeetan, haien iritzia ematea ez die inolako beldurrik ematen. Emandako erantzunak hauek izan dira: 5 neskek neskek azkarragoak direla esaten dute, 7 mutilek mutilak azkarragoak direla esaten dute, 3 neskek mutilek azkarragoak direla esaten dute, 2 neskek eta mutil batek bi sexuen arteko abiaduran oreka dagoela esaten dute. Eztabaida-taldeetan, mutilek presentzia gehiago hartzen dute. Gehien errepikatzen den ideia mutilak azkarragoak direla da. Neskak ez dira ausartzen haien balioespen propioa publikoki aitortzera. Neskak elkarrizketatzailearen bultzada sentitzerakoan euren ideiak adieraztera atrebitzen dira:

M: Orokorrean mutilak. N: ixilik. (Nire interbentzioa): Neskak, lehen aitortu duzue zuetariko batzuk azkarrenetarikoak zaretela, zergatik ez duzue orain aitortzen? N (oso lotsatuta): bueno batzuetan ni bai. (Ezt-NM-1.eta 2. taldea)



Irudia 8: Sexuaren arabera zein uste duten azkarragoa dela galdetzean eman dituzten erantzunak.


Indarraren balorazioa egiterakoan joera desberdinak antzematen dira, mutil eta nesken artean adostasun gehiago ematen dira. Parte-hartzaile gehienek, mutilak eta neskek indar bera dutela esaten dute, hau da, indar gaitasuna ez dagoela generoaren mesedeetan. Hala ere, mutil talde batean, notazio txiki bat egiten da; nahiz eta indarberdintasunaren alde egin, batzuetan mutilek indar gehiago dutela baieztatzen dute, izan ere, haien ustez neskek argalagoak eta txikiagoak dira, eta hori dela eta indar gutxiago dute:

M (aho batez): mutilak. Ez beti, baina bai gehienetan. M1: Es que talde honetako neskek oso argalak daude.” (ET-M-4.taldea).

Talde honetako, ET-M-4.taldeko beste mutil bat ez dago guztiz ados, izan ere, haren ustez gorputzaren tamainak ez du indar gaitasuna mugatzen.

M1: Neskek oso argalak dira. M2: baina argalak izatea ez du zertan esan nahi indarra ez dutenik. M1: Esan nahi dudana da, txikiagoak zaretenez, ba agian indar gutxiago daukazue. (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Bestalde, neska talde batean, neska batek emakumeen alde egiten du, eta neskek indar gehiago dutela aipatzen du.



Irudia 9: Sexuaren arabera zein uste duten indartsuagoa dela galdetzean eman dituzten erantzunak.

6. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Eskola-kirolaren ingurua, jendartea bezala, ezaugarri sexistaz osatuta dagoela esan dezakegu. Eredu honek, gizarte honetan emandako fenomeno guztiak bezala, haren baloreak, ezaugarriak eta ideiak pairatuko ditu. Modu honetan, eskola-kirola jendarte sexista baten isla izango da. Hala ere, errealitatea anitza da, eta nahiz eta ideia batzuk belaunaldi belaunaldi kulturalki hedatuak egon, lortutako emaitzak baita ere anitzak dira. Orokorrean, ikusitakoaren arabera esan daiteke balore sexistak modu inplizituan agertzen direla gaur egungo umeen hezkuntza prozesuan. Galdetegi zein eztabaidetan parte-hartutako umeen ideiak eta baloreak oraindik eraikitze prozesuan daude, baina eskola, mundua ulertzeko beharrezkoak diren potentzialitateak garatzeko baligarria izan behar da, eta hala interakziorako, eraikuntzarako eta garapenerako gunea (Carlos Echevarrias, 2003).

Galdetegi eta eztabaidan parte-hartu duten neska askoren erantzunetan ideia sexisten kontrako joera eta kontzientziazio gehiago nabaria da. Aldiz, mutilegan guztiz nabariak dira inplizituki barneratu dituztela ideia-tradizional sexistak. Hala ere, esan daiteke ideia horiek bi generoen sinesmenak kutsatu dituela, izan ere, nesken pentsamenduetan ideia sexistak arrastoak utzi ditu baita ere.

Marko teorikoan esan den lez, Felix Guillén eta Montserrat Ramírez-en (2011) esanetan, mutilek euren autokontzeptu eta **autopertzepzioan**, neskek baino

indartsuago aitortzen dira. Mercedes Matos-en (2008) hitzetan, emakumeei kostatu egiten zaie euren burua pertsona gisa baloratzea, izan ere, gizonak ezarritako prototipoa eta eredia erabiltzen da. Bestalde, Robert Josephs, Hanzel Markus eta Romin Tafarodik (1992) egindako ikerketa batean, genero-desberdintasunek autoestimuan eta autopertzepzioan eragina dutela frogatu zuten. Bertan agerian geratu zen, gizonak trebetasun hobeak dituzten subjektutzat hartzen direla.

Gorputz estereotipoak aztertzerakoan, elkarrizketetan parte-hartu zuten nesken gizarteak markatutako eredu estetiko femeninoei jarraitzeko eta ez haien aurka joateko joera baieztatzen da. Halaber, proposatutako beste patroien femeninoekin, gorputz gihartsuekin alegia, neskek ez dira identifikatzen. Honen arrazoia beren burua goi mailara iristeko gai ikusten ez dutela da. Mutilen kasuan, ordea, maskulinitate patroien estetikoak ez da hain agerikoak, euren gorputza ume txiki batena dela inongo ahalkerik gabe onartzen dute. Matilde Fontecha-k (2016) dioen moduan, edertasun femeninoaren inposaketa gai esanguratsua da, orokorrean ez baita diskriminazio faktoretzat jotzen eta are gutxiago arazo gisa. Kontrakoa, emakumeen balio nagusia edertasuna dela onartzen ari da jendartea. Sexualizazioa garrantzia hartzen ari den joera da, emakumeen bizitza korapilatzen du eta bere feminitatearen eredia kirol munduan sartu da erabat. Logika orotik kanpo, kirolari ona izatea ez da nahikoa, hortaz aparte kirolaria oso femeninoa izan behar du.

Ildo beretik, *etorkizuneko aukerei* dagokionez, mutilek euren hobekuntzan abantaila gehiago ikusten dituzte, haien hitzetan, OGF hobeak izaterakoan haien kirol errendimendua hobetzeko aukera gehiago izango baitituzte ere. Egoera honek, beste behin ere, aurretiaz aipatutako autoreek esandakoa baieztatzen dute: mutilek neskek baino autoestimu maila handiagoa dute.

Lehiaketarako eraginkortasuna arakatzerakoan, ideia hauek guztiz nabarmen agertzen dira. Orokorrean mutilek, lehiatzeko eta irabazteko orduan, ez dituzte emakumeen gaitasunak kontuan hartzen. Nuria Puig-ek (2002) esan bezala, emakumeen praktikatzeko moduak ez dira ondo ulertzen gizonen artean eta askotan ez dira baloratzen. Ikusi den bezala, egoera hau aztertutako taldean errepikatzen da. Aldiz, neskek mutilen zein nesken gaitasunak hartzen dituzte kontutan. Gainera, emakumeak lehiaketetan bi sexuak batera parte-hartzearen aldekoagoak dira. Era horretan ikerketek diote, mutilen autopertzepzioa neskenak baino indartsuagoa dela (Felix Guillén eta Montserrat Ramírez, 2011). Aurretiaz aipatutako Antonio Fraile eta Raul Diego-ren

(2006) hitzetan, neskek lehia jarduerari eta irabazteari mutilek baino garrantzi txikiagoa ematen diote. Garrantzia gehiago ematen diote parte-hartzeari eta alor teknikoari, emaitza onak lortzeari baino, eta hori, gure emaitzetan baita ere agertu da.

Talde barneko **harremanetan** jasotako emaitzak oso adierazgarriak dira. Ekipoko *lidergoak* prototipo maskulinoarekin identifikatzen da eta honekin bat, *botere harremanak* genero maskulinoaren esku gelditzen dira. *Genero diskriminazioa* umeen bizipenen arabera oso eskasa da. Hala ere, aurretiaz zitatutako autoreek esaten duten bezala, diskriminazio hau sumisio sinboliko baten atzean ezkututzen da. Mutilek ez dute neskekin lehiaketarako kontatzen eta entrenamenduetan haien aurretik pasatzea normala ikusten dute, eta jokaera horiek genero-diskriminazio jokabide inplizituak dira. Hala ere, haurren diskurtsoan berdintasuna dela nagusi agerian geratzen da, diskurtso menderatzailea onartzen. Aldi berean, sexismo etsaiaren agerpen tradizionalaren aurrean gaude, sexismoari buruzko borondate oneko adierazpenak ugaritu diren arren (Ángel Vázquez-Alonso eta Maria Antonia Manassero-Mas, 2011).

Gazteen **erreferenteak**, lehen plano batean, erreferente maskulinoak dituzte ardatz, bai ingurune hurbilean, zein mundu mailan. Ana López-en (2015) ikerketak dioen bezala hezkuntza material didaktiko guztietan emakumeen agerpen gabeziak nabarmenak izaten dira, %7,6an baino ez baitira agertzen. Biztanleriaren erdia ordezkatzeko kopuru txikia da, haien ekarpenak ez baitira kontuan hartzen hezkuntza-garapenean. Kasuak kasu, jendarte honetan erreferente femeninoen gabeziaren adierazle argia da.

Igerilarien **OGF**-en balioespenari dagokionez, aurretiaz aipatu diren patrioiak errepikatzen dira. Neskek euren gaitasunetan gehiegi sinisten ez duten bitartean mutilek, Robert Josephs et al (1992) esan bezala, haien gaitasunen gehiagotasuna onartzen dute. Hala ere, marko teorikoan esan den lez, Lisimaco Vallejo-k (2002), abiadurari dagokionez 12 urtera arte, neskek mutilek baino balio hobeak lortzen dituzte, eta gure lagin-taldean, adin horretan egonda, eredu hori errepikatzen da. Hala ere, estereotipoen araberrako usteak mantentzen dira, orokorrean gazteek pentsatzen baitute mutilak hobeak direla emaitza txarragoak izan arren.

Baina, nori dagokio haurren kontzientzia eta pentsamendua? Nork eraikitzen ditu idea hauek? Zein da erruduna edo errudunak? Gu gara? Jendartea da? Nondik hasi gaitzke? Zein da irtenbidea? Noraino helduko gara?

Gaur egun estereotipo femeninoek ito gaituzte. Nahiz eta aurrerapenak egon direla eman, errealitatea beste bat da. Emakumeari buruz, komunikabideetan, eta batez ere publizitatean, proiektatzen den irudiak objektu hauskor eta apaintzekoa izaten jarraitzen du. Baina batez ere objektu pasibo bezala ikusten da, behaketarako sortutakoa; eta fenomeno hau neskek, txikitatik barneratzen dute (Benilde Vázquez, 2002). Hala ere, politikak direla entzun beharrik ez duten emakumez beteta dago mundua.

Haurren errugabetasunetik neska batek bizitzan zehar izan ditzakeen oztupoak ikustea zaila da. Inork ere ez digu irakasten sistema patriarkalak ezartzen dituen eragozpenak detektatzen. Emakume batek, esperientziak biltegitratuz, eraso sinboliko sexistei bizirauteko bere defentsa mekanismo propioa eraikitzen du. Inork ere ez dizu esango: *“bai, emakume izate hutsagatik zu horrela bizitzen ari zara eta horrela biziko zara”*. Aukera-berdintasunak, sozialki duina eta bidezkoa den sistema bat defendatzen du, pertsona guztiek gizarte-ongizatera iristeko aukerak berberak dituztenean ematen dena. Hala da emakumeen kasuan? Ikuspegi androzentrista batetik, emakumea eta arrakasta hitzak oso zaila dira gune berean aurkitzea. Emakumearen zapalkuntzaren arrazoi nagusia kultura tradizionalak ematen du, tradizioak atzerapena dakar eta ez du emakumearen emantzipazioa errazten. Ikuspegi honen etsai nagusia berdintasunean hezi ez izana eta emakumearen arrakastari dagoen beldurra litzateke (Beatriz Ugarte et al., 2018).

Honekin batera, perspektiba androzentristak, gizona gauza guztien erdigunean kokatzerakoan lidergoa eta boterea haren eskuetan utzi du. Androzentrisismoak, gizonaren begirada posible eta unibertsal bakarria ezarri du, emakumea jendartaldetik at utziz. Azken finean, perspektiba honek diskriminazio bat eraiki du.

Emakumeak urtez-urte ezkutatua egon dira. Nahiz eta azken urteetan haien ikusgarritasuna handitu den, propaganda hutsa bihurtu da. Izan ere, ondorio praktikoetan emakumeek desabantailan jarraitzen dute. Emakumeen protagonismo positiboa indartu behar da. Edozein gunetan emakume erreferenteak ezagutarazi behar dira; aukera berdina izateko. Gure alorrean zentratuz, emakumeen motrizitatearekin zein haien oinarritzko gaitasunekin problematika esanguratsua ematen da. Patriarkatuan, motrizitate oneko emakume gorputzen kontra egin da. Gizarte honetan, ahalmen fisiko handikoak, izerditan edo gihar handiko emakumeak ez dira femeninoztat hartzen, eta eredutik ateratzen direnez, ez dira onartuak izaten. Halaber, nahiz eta

gaitasun fisiko horiek mutilengan baloratuak izan, emakumeek ez dituzte behar besteko aintzatespena lortzen. Adibide gisa har daiteke gure igerilari mutil batek esandakoa:

M1: azkenekoa neska edo mutila da?" (Nire interbentzioa): "neska". M1: "ba transexual bat dirudi!" (ET-M-4.taldea)

Azken finean, ideia guzti horiekin ondoriozta daiteke, patriarkatuak ezarritako balore eta ideologia tradizionalak, gaur egungo jendartean guztiz presente jarraitzen dutela. Aurrerapenak ematen ari direla pentsatu arren, aurrerapenak guztiz sinbolikoak dira eta edozein azterketan benetako errealitatea agerian uzten da.

Beraz, igerilari talde hauekin lortutako ondorio adierazgarrienak honako hauek izan daitezke:

- Haurrentzat lehia arrakasta izateak, ez du euren autoestimuan eragiten.
- Neskek jendarteak ezarritako patroizko estetikoak jarraitzen duten bitartean, mutilei maskulinizazio patroiak ez die hainbeste eragiten, gutxienez lehen hezkuntzan dauden bitartean.
- Etorkizunari begira berdintasunaren aldeko aldarrikapen bat dago, hala ere, diskurtso menderatzailearen onarpena ematen da mutilen egoera positiboagoa begi-bistan utzita.
- Mutilek kirol-arrakastatik neskak baztertzen dute, aldiz neskek mutilekin kontaktzen dute.
- Lidergoa eta botere harremanak genero maskulinoaren eskutik doa, genero diskriminazio sinboliko bat suspertuz.
- Bi sexuetan, igerilarien erreferenteak gizonak dira.
- Mutilek euren oinarrizko gaitasun fisikoak neskenak baino hobeak direla uste dute. Neskek, berriz, uste dute oreka bat dagoela bi sexuen gaitasunetan.

7. ETORKIZUNEN ILDOA

Lanari ikuspegi prospektibo bat emateko, etorkizunean gure gain hartu beharreko bide desberdinak planteatu behar dira. Adierazitako problematika konpontzeko, unean-uneko ekintzak planteatzeaz gain, gerorako antolabideak erabakigarriak dira. Soluzio posibleak jendarte honetako esparru desberdinerantz estrapolatu behar dira. Gure baitatik hasita, eta komunitate osoari eragiten duen alorretan bukatuz.

Maila pertsonalean, lehenik eta behin, ideologia tradizionalaren kateetatik askatu behar gara. Gure jendarte aurrera egiten duen heinean, gure baloreek ere progresio hori jasan behar dute. Tradizioa sexismoaren parekoa da, eta binomio horrekin apurtu behar da. Bestalde, emakumearen balioespena eta ikusgarritasuna bermatu behar dugu. Emakumeek merezi duten protagonismoa berdintasun positibo baten eskutik joan behar da, eta berdintasun positibo horrek gure ekintza indibidualak indartu behar ditu.

Gizarte mailan, egin-beharrekoak askoz esanguratsuak izan behar dira. Azken finean, benetako aldaketek emaitza arrakastatsuak ekarriko dituzte. Politika, legedia, kontsumoa, aisialdia eta kultura... DENA sistema patriarkal baten gainean eraikita dago, beraz, gizarte honetako alor guztietan aldaketak ezinbestekoak dira. Aisialdirako eta kulturako alternatibak bilatu behar dira eta ikus-entzunezkoen erregulazioa guztiz beharrezkoak dira. Bestalde, gizarte honek berdintasuna aldarrikatzen duten rola eskatzen ditu. Era berean, lan-merkatuan emakumei aukera gehiago emango dizkien ikuspuntuak zabaltzea beharrezkoa da, non enpresek zein erakundeek zaintzaren ardura hartuko duten. Halaber, egun daukagun aukeraketa-askatasuna desmitifikatu behar da, hain zuzen genero-desberdintasuna justifikatzeko erabiltzen dena. Honekin batera, baldintzatzen gaituzten gizarte-itxaropenak suntsitzea ezinbestekoa da. Eta azkenik, eta problematika honi amaiera emateko, albistegiak betetzen dituen genero indarkeria emakumeek gizarte patriarkaletan bizi duten diskriminazioaren izebergaren punta baino ez dela jakin beharko genuke.

Hezkuntza alorrak erantzukizun handia du beregain, izan ere, jendarte osoa berrezi behar da. Heziketa ikuspegi honek hezkidetzan oinarrituta egon behar du. Hezkidetzak, belaunaldi eta populazio desberdinetan eragiteko helburuak eta baliabideak izan behar ditu. Hezkidetzak Haur Hezkuntzatik hasita, Lehen Hezkuntzara eta Bigarren Hezkuntzara –bai derrigorrezkoa eremuetan eta bai hautazkoetan- heldu behar da. Horretarako ikasleaz gain irakasleek formazio hezkidetzailera jaso behar dute.

Halaber, etorkizuneko irakaskuntzako eta pedagogiako bestelako profesionalek, euren ibilbide profesionala eusteko. Era berean, haur, gazte zein helduekin tratatu zuzena duen edonor, kasuak kasu; entrenatzaileek, monitoreek, gizarte laguntzaileek, etab. guztiz barneratuta eduki behar dituzte aipatutako balore hezkidetzaileak. Laburbilduz, jendarte oso bat eta jendarte hura tratatzeko betaurreko moreak erabiltzeko prest egon behar gara.

Bizitzaren aurrean betaurreko moreak jantzi!

8. BIBLIOGRAFIA

- Álvarez-Uria, Amaia (2013). Euskal trans literarioak. Trans ezkutuen kartografia bat XX. mendeko euskal literaturan. In Isa Castillo eta Iratxe Retolaza (edk.). *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak 139-163 orr.*. San Sebastián, EDO.
- American Psychological Association (2011) Definition of Terms: Sex, Gender, Gender Identity, Sexual Orientation. 2019ko urrian berreskuratua, <https://www.apa.org/pi/lgbt/resources/sexuality-definitions.pdf> -tik.
- Aresti , Nerea (2002). *Médicos, donjuanes y mujeres modernas. Los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Azpiazu, Jokin (2012). Grupos de hombres y discursos sobre la masculinidad: ¿Nuevas configuraciones?. Doktore-tesia. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Bardi, Alberto, Leyton, Carolina, Martínez, Vania, eta González, Electra (2005). Identidad Sexual: proceso de definición en la adolescencia. *Reflexiones Pedagógicas*, 26, 43-51.
- Barrio, Jesús (2019). Género en Educación Física, contexto Ecuador: agentes de respeto y convivencia armónica. *Conference: 2º Congreso Mundial de Educación. EDUCA 2019*. DOI: 10.13140/RG.2.2.36637.26085
- Bizkarra, Mariate (2020). Informazioaren analisia - Kategoria Sistemaren garrantzia. GRAL Prestakuntza. 2020ko Urtarrilaren 28a, (power pointa). Gasteiz: UPV/EHU.
- Blández, Julia, Fernandez, Emilia, eta Sierra, Miguel Ángel (2007). Estereotipos de género, actividad física y escuela: La perspectiva del alumnado. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 11(2)., 1-21
- Blázquez, Domingo eta Amador, Fernando. (1995). *La iniciación deportiva y el deporte escolar*. Barcelona: Inde.
- Butler, Judith (1990). *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*, New York, Routledge.
- Cabeza, Ana. (2010). Importancia de la coeducación en los centros

- Cebotarev, Nora (2003). Familia, socialización y nueva paternidad. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 1, 1-19. 2019ko urrian berreskuratua http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1692-715X2003000200003 tik.
- Chacónl, Arantza., Oskoz, Josu., eta García, Bernardo. (2009). *Giza eskubideak garapen lankidetzan sartzeko gida metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Chicaiza, Viviana Alexandra. (2015). Los juegos tradicionales y su influencia en el desarrollo social de los niños/as de 4-5 años de la escuela de educación básica Juan Francisco Montalvo del Cantón Píllaro. (Bachelor's thesis), Ambato, Ecuador: Universidad Técnica de Ambato-Facultad de Ciencias de la Salud-Carrera de Estimulación Temprana.
- Crawford, Mary., eta Unger, Rhoda. (2004). *Women and gender: A feminist psychology*. New York: McGraw-Hill.
- De Andrés, Josep. (2000). El análisis de estudios cualitativos. *Atención Primaria*, 25(1), 42-46.
- Devís, José (1995). Deporte, educación y sociedad: Hacia un deporte escolar diferente. *Revista de Educación*, 306, 455-472.
- Echavarrías, Carlos. Valerio. (2003). La escuela: un escenario de formación y socialización para la construcción de identidad moral. *Revista latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y juventud*, 1(2), 15-43.
- Echeverría, Genoveva. (2005). *Análisis cualitativo por categorías*. Santiago, Chile: Universidad Academia de Humanismo Cristiano.
- Escalante, Eduardo (2009). Perspectivas en el análisis cualitativo. *Theoria*, 18(2), 55-67.
- Esteban, Mari. Luz (1998). Antropología eta feminismoa. *Uztaro*, 24, 3-17.
- Etxebeste, Joseba (2006). Euskal curriculum eta eskolaz kanpoko joko-jolasak. *Ikastaria*, 15, 123-132.

- Euskal Herriko Bilgune Feminista (2014). Sexualitatearen eztabaida. 2019ko Urriar berreskuratua, http://bilgunefeminista.eus/uploads/erab_1/2015/04/1430048383-sexualitatetxostenabf.pdf -tik.
- Fernández, Emilia., Contreras, Onofre, Sánchez-Bañuelos, Fernando eta Fernández-Quevedo, Cesar (2011). Evolución de la práctica de la actividad física y el deporte en mujeres adolescentes e influencia en la percepción del estado general de salud. *Colección ICD: Investigación en Ciencias del Deporte*, 35. 21-60.
- Fernandez, June. Martínez, Lucía eta Vidal, Pablo (2014). Sexismoa joko eta jostailuen 2013 publizitate kanpainan, sexismoa antzemateko tresna. Gasteiz: Emakunde. 2019ko urriar berreskuratua, http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/informe.33.publizitatea.eus.pdf -tik.
- Ferreiro, Lola. (2007). Género, salud sexual y actitudes hacia el riesgo. In emakunde (koord). (83-132 orr.). *Sare 2007 Nazioarteko Kongresua : "Maskulinitatea eta eguneroko bizitza"* (83-132 orr.). Gasteiz: XDZ - Xenpelar Dokumentazio Zentroa
- Fontecha, Matilde. (2016). Deporte y feminismo: una relación difícil. *Pikara Online Magazine*. 2020ko apirilaren 10ean berreskuratua, <https://www.pikaramagazine.com/2016/03/deporte-y-feminismo-una-relacion-dificil/> -tik.
- Fraile, Antonio eta de Diego, Raul. (2006). Motivaciones de los escolares europeos para la práctica del deporte escolar. Un estudio realizado en España, Italia, Francia y Portugal. *Revista internacional de sociología*, 64(44), 85-109.
- Friedan, Betty (2017). *La mística de la feminidad*. Madrid: Ediciones Cátedra.
- Gala, Francisco Javier. (2018). *Cuestionario y Entrevistas*. Introducción a la psicometría para trabajadores y trabajadoras sociales. Conferencia: Sevilla. 2020ko urtarrilaren 13an berreskuratua, https://www.researchgate.net/publication/329542511_CUESTIONARIOS_Y_ESTREVI-STAS - tik.
- Guillén García, Felix., eta Ramírez Gómez, Montserrat. (2011). Relación entre Autoconcepto y Condición Física en Alumnos del Tercer Ciclo de Primaria. *Revista de Psicología del deporte*, 20(1), 45-59.

- Gutiérrez, Melchor. (2004). El valor del deporte en la educación integral del ser humano. *Revista de educación*, 335, 105-126.
- Infesta, Graciela. eta Edith, Sandra. (2009). Género y Deporte: hallazgos actuales y desafíos para la investigación. *Calidad de Vida UFLO-Universidad de Flores*, 2, 85-citation_lastpage. Kontsulta: <http://cdsa.aacademica.org/000-066/1892.pdf>
- Iribarren, Lucía. (2010). Escuela inclusiva y diversidad de modelos familiares. *Revista Iberoamericana de educación*, 53(6), 1-11.
- Jaqueira, Ana Rosa, Lavega, Pere, Lagardera, Francisco, Araújo, Paulo, eta Rodrigues, Mario (2014). Educando para la paz jugando: género y emociones en la práctica de juegos cooperativos competitivos. *Educatio Siglo XXI*, 32, 15-32.
- Josephs, Robert, Markus, Hazel, eta Tafarodi, Romin (1992). Gender and self-esteem. *Journal of personality and social psychology*, 63(3), 391.
- Kaufman, Michael (1994). Men, Feminism, and Men's Contradictory Experiences of Power. In Harry Brod and Michael Kaufman (ed.) *Theorizing Masculinities*, (142-164 orr.) Thousand Oaks, CA: Sage publications.
- Lagarde, Marcela. (1997). Identidad de género y derechos humanos la construcción de las humanas. In Guzmán Stein, Laura y Silvia Pacheco (comps.) *Estudios básicos de derechos humanos IV* (127 orr.). Instituto Interamericano de Derechos Humanos, San José, Costa Rica.
- Lomas, Carlos (2004). *Los chicos también lloran*. Barcelona: Ediciones Paidós Ibérica
- López, Ana. (2015). Las mujeres que nos faltan. Análisis de la ausencia de las mujeres en los manuales escolares. Informazioa falta da, ez dakigu liburua, edo artikulua. Datu asko falta dira.
- López, Felix (1984). La adquisición del rol y la identidad sexual; función de la familia. *Infancia y aprendizaje*, 7(26), 65-75.
- López, Silvia. (1992). Construcción racional y autónoma de valores y habilidades sociales. *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 4(15), 93-98.

- Martínez Lirola, Maria (2010). Explorando la invisibilidad de mujeres de diferentes culturas en la sociedad y en los medios de comunicación. *Palabra Clave*, 13 (1), 161-173.
- Martinez, Isabel eta Bonilla, Amparo (1999). *Sistema sexo/género, identidades y construcción de la subjetividad* (Vol. 31). Valentzia: Universitat de València.
- Martínez, Lucía. (2009). Los hombres en los medios de comunicación. Gasteiz: Emakunde. 2019ko urriaren berreskuratua, https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/gizonduz_dokumentuak/es_def/adjuntos/5_los_hombres_en_los_medios_de_comunicacion.pdf - tik
- Matoss, Mercedes (2008). Las niñas sí silban: Afirmación personal y autoestima desde una perspectiva de género. *Análisis*, 9(1), 361-376.
- Meneses, Julio, eta Rodríguez, David (2011). El qüestionari i l'entrevista. In S. Fàbregues. Construcció d'instruments per a la investigació. (30-52 orr.). Barcelona: Editorial UOC.
- Moral, Cristina (2006). Criterios de validación en la investigación cualitativa actual. *Revista de Investigación Educativa*, 24(1), 147-164.
- Moreno, Emilia (2000). La transmisión de modelos sexistas en la escuela. In Miguel Angel, Santos (koord). El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar, (11-31 orr.). Bartzelona: Graó.
- Murphy, Petter. (Ed.). (2004). *Feminism and masculinities*. Oxford, Uk: Oxford University Press.
- Oakley, Ann. (2016). *Sex, gender and society*. London, UK: Routledge.
- Ortuzar Oyanguren, Iñaki. (2006). Deporte escolar y proyecto educativo de centro. *Ikastaria*, 15, 81-88.
- Padilla, Rafael. (2009). Desarrollo psicoevolutivo en niños de 6-12 años. *Revista Digital de Innovación y Experiencias Educativas*, 14. 2019ko abenduaren 10ean berreskuratua, https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_14/RAFAEL_PADILLA_1.pdf -tik.
- Piaget, Jean. eta Inhelder Bärbel. (1969). *Psicología del niño*. Madrid: Morata

- Piussi, Anna Maria (1997). *Enseñar ciencia: autoridad femenina y relaciones en la educación* (Vol. 112). Barcelona: Icaria Editorial.
- Rodríguez María del Carmen eta Peña, José Vicente (2003). Identidades esquemáticas de género en la escuela: a propósito del primer aniversario de la muerte de Pierre Bourdieu. *Teoría de la Educación. Revista Interuniversitaria*, 14, 235-263.
- Rodríguez-Negro, Josune, eta Yanci, Javier. (2019). "Motor skills difference by gender in 9- to 11-year-old elementary education students ." *Child Education: Perspectives, Opportunities and Challenges*. 1(4). NOVA.
- Romero Chaves, Cristina (2005). La categorización un aspecto crucial en la investigación cualitativa. *Revista de investigaciones Cesmag*, 11(11), 113-118.
- Rubin, Gayle (1984). Thinking sex: Notes for a radical theory of the politics of sexuality. *Social perspectives in Lesbian and Gay Studies; A reader*, 100-133.
- Santos Guerra, Miguel Angel (2000). *El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar*. Barcelona: Graó..
- Subirats, Marina eta Tomé, Amparo (2007). *Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación*. Barcelona: Octaedro.
- Tomé Gonzalez, Amparo. (1996). Incidencia del género en las relaciones interpersonales y en el desarrollo de actitudes y valores. *La coeducación, transversal de transversales*, 23-45.
- Torres, Gema, Carpio, Elisabeth, Sánchez, Amador, eta Zagalaz, M.Luisa (2014). Niveles de condición física de escolares de educación primaria en relación a su nivel de actividad física y al género. *Retos. Nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 25, 17-22.
- Triana, Alba. Nidia., Ávila, Liliana., eta Malagón, Alfredo. (2010). Patrones de crianza y cuidado de niños y niñas en Boyacá. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 8(2) , 933-945.
- Ugarte Maiztegi, Beatriz. Otaduy Bengoa, Maria Luisa eta Irigoyen Perurena, Make. (2018). *Hezkidetzan Esku Hartzen ikastaroa*. 1. Edizioko apunteak. Gasteiz: Irakasle Eskola.

Vallejo, Lisímaco. (2002). Desarrollo de la condición física y sus efectos sobre el rendimiento físico y la composición corporal de niños futbolistas. Tesis doctoral. Barcelona: Universidad Autónoma de Barcelona.

Vázquez-Alonso, Ángel, eta Manassero-Mas, Maria Antonia (2011). El descenso de las actitudes hacia la ciencia de chicos y chicas en la educación obligatoria. *Ciência & Educação*, 17(2), 249-268.

Vázquez, Benilde. (2002). La mujer en ámbitos competitivos: el ámbito deportivo. *Faisca: revista de altas capacidades*, 9, 56-69.

Viera Sánchez, Emilio. (2008). El desarrollo Psicomotor, Esquema corporal, Elementos en su formación. *PODIUM: Revista de Ciencia y Tecnología en la Cultura Física*, 3(2), 66-81.

ERANSKINAK




HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GARAZI URIBARRI RIVAS

9. ERANSKINAK

9.1. I. ERANSKINA: GALDETEGIA

1. Nortzuk dira klubeko liderrak?
2. Nortzuk joan behar dira lehenengoak kale bakoitzean?
3. Nortzuk dira azkarragoak zuen taldean? Neskak ala mutilak?
4. Eta indartsuagoak?
5. Uzten al dizuete neskek kaletik tira egiten?/ Uzten al dizuete mutilek kaletik tira egiten?
6. Beste generoko norbait irabazten duzuenean, hura baino hobeak zaretela uste duzue?
7. Esaidazue 4 izen, zeinekin irabazteko errelebo bat osatuko zenuketen:
8. Orokorrean neskak azkarragoak direla uste duzu? Ala mutilak? Orduan zergatik aukeratu dituzu aurreko kide horiek?
9. Zuen ustez, marken hobekuntza desberdina izan daiteke neska edo mutila izanda?
10. Noizbaiten taldean edo klubeko jarduera batean diskriminatua sentitu zara? Zergatik? Neska ala mutila izateagatik izan zitekeen?
11. Zure irudia hemendik 3 urtera: zein marrazkirekin identifikatuko zinateke? Zergatik?



9.2. II. ERANSKINA: BAIMEN GUTUNA

Guraso agurgarriak:


Garazi Uribarri Rivas naiz, [REDACTED] Igeriketa Elkarteko entrenatzaile eta igerilari ohia. Zuengana laguntza eske hurbiltzen naiz. Lehen Hezkuntzako, Gorputz Hezkuntza espezialitatean, Gradu Amaierako Lana (UPV/EHU) burutzeko zuen seme-alaben kolaborazioa beharko nuke. Eskola-kirolean dauden genero estereotipo edo aurreiritzien ikerketa txiki bat burutzen ari naiz, horretarako igerilari gazteen testigantzak behar ditut. Hori dela eta, elkarrizketa txiki bat egin nahiko nieke, betiere euren anonimatua errespetatuz. **Azaroaren 29a, ostirala**, burutuko litzateke. Baimendutako partaideen arabera ordutegiak zehaztuko dira, baina entrenamenduko lehenengo 5-10 minutuak hartzea izango da intentzioa.

*OHARRAK:

- Egunean, entrenamendu orduan nirekin elkartuko dira igerilekuko pasiluan eta ondoren arropaz aldatuko dira (hotza hartu ez dezaten).
- [REDACTED] Igeriketa Elkartea zein [REDACTED], jarduera honen antolaketaz jakinaren gainean daude.

Nik _____ ; _____ N.A.N
zenbakiarekin, Garazi Uribarri Rivas-en ([REDACTED]) Gradu Amaierako Lanean, nire
seme-alabaren; _____ kolaborazioa baimentzen dut.

Sinadura:



Garazi Uribarri Rivas

Estimados padres:


Soy Garazi Uribarri Rivas, ex entrenadora y nadadora del Club Natación [REDACTED]. Me acerco a ustedes para pedirles ayuda. Necesitaría la colaboración de sus hijos para llevar a cabo mi Trabajo de Fin de Grado de Educación Primaria, mención en Educación Física, (UPV/EHU). Estoy llevando a cabo una pequeña investigación sobre los estereotipos de género y/o prejuicios existentes en el deporte escolar. Para ello necesito los testimonios de los jóvenes nadadores, por lo que quisiera hacerles una pequeña entrevista, siempre respetando su anonimato. Esta actividad se llevará a cabo el **viernes, 29 de Noviembre**. En función de los participantes autorizados se determinarán los horarios, pero la intención será tomar los primeros 5 – 10 minutos del entrenamiento de dicho día.

* OBSERVACIONES:

- El día mencionado, los nadadores se reunirán conmigo en el pasillo de los vestuarios a la hora del entrenamiento y después se cambiarán de ropa (para que no cojan frío).
- Tanto el Club Natación [REDACTED] como el [REDACTED] están informados de la organización de esta actividad.

Yo _____; con D.N.I _____ autorizo la colaboración de mi hija/o _____ en el Trabajo de Fin de Grado de Garazi Uribarri Rivas ([REDACTED]).

Firma:



Garazi Uribarri Rivas

9.3. III. ERANSKINA: BERRANTOLAKETA

Autopertzepzioa Etorkizun aukerak generoa berdintasuna.- 9. Neska batek, mutil batek baino, erraztasun gehiago al ditu bere markak hobetzeko? Eta, mutil batek, neska batek baino erraztasun gehiago al ditu bere markak hobetzeko? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

Autopertzepzioa Etorkizun aukerak generoa berdintasuna.- 9. Neska batek, mutil batek baino, erraztasun gehiago al ditu bere markak hobetzeko? Eta, mutil batek, neska batek baino erraztasun gehiago al ditu bere markak hobetzeko? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Autopertzepzioa Etorkizun aukerak generoa berdintasuna.- 9. Zuen ustez, marken hobekuntza desberdina izan daiteke neska edo mutila izanda? (ET-N-1.taldea)

Autopertzepzioa Etorkizun aukerak generoa berdintasuna.- 9. Zuen ustez, marken hobekuntza desberdina izan daiteke neska edo mutila izanda? (ET-M-2.taldea)

Autopertzepzioa Etorkizun aukerak generoa berdintasuna.- 9. Zuen ustez, marken hobekuntza desberdina izan daiteke neska edo mutila izanda? (ET-N-3.taldea)

Autopertzepzioa Etorkizun aukerak generoa berdintasuna.- 9. Zuen ustez, marken hobekuntza desberdina izan daiteke neska edo mutila izanda? (ET-M-4.taldea)

Autopertzepzioa gorputz irudi estereotipatuak.-11. Zure irudia hemendik 3 urtera: zein marrazkirekin identifikatuko zinateke? Zergatik? (ET-N-1.taldea)

Autopertzepzioa gorputz irudi estereotipatuak.-11. Zure irudia hemendik 3 urtera: zein marrazkirekin identifikatuko zinateke? Zergatik? (ET-M-2.taldea)

Autopertzepzioa gorputz irudi estereotipatuak.-11. Zure irudia hemendik 3 urtera: zein marrazkirekin identifikatuko zinateke? Zergatik? (ET-N-3.taldea)

Autopertzepzioa gorputz irudi estereotipatuak.-11. Zure irudia hemendik 3 urtera: zein marrazkirekin identifikatuko zinateke? Zergatik? (ET-M-4.taldea)

Autopertzepzioa Lehiakortasuna.- 6. Beste generoko norbait irabazten duzuenean, hura baino hobeak zaretela uste duzue? (ET-N-3.taldea)

Autopertzepzioa Lehiakortasuna.- 6. Beste generoko norbait irabazten duzuenean, hura baino hobeak zaretela uste duzue? (ET-M-4.taldea)

Autopertzepzioa Lehiakortasuna.- 6. Beste generoko norbait irabazten duzuenean, hura baino hobeak zaretela uste duzue? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Autopertzepzioa Lehiakortasuna.- 6. Beste generoko norbait irabazten duzuenean, hura baino hobeak zaretela uste duzue? (ET-N-1.taldea)

Autopertzepzioa Lehiakortasuna.- 6. Beste generoko norbait irabazten duzuenean, hura baino hobeak zaretela uste duzue? (ET-M-2.taldea)

Autopertzepzioa Lehiakortasuna.- 6. Beste generoko norbait irabazten duzuenean, hura baino hobeak zaretela uste duzue? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

Erreferenteak generoa ingurua. – 11 Nor da klub osoko igerilari onena edo onena? (NAGUSIAK KONTUAN IZANDA) Eta mundutik? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

Erreferenteak generoa ingurua. – 11 Nor da klub osoko igerilari onena edo onena? (NAGUSIAK KONTUAN IZANDA) Eta mundutik? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Harremana (lidergoa) boterea generoa.- (ET-N-1.taldea)

Harremana (lidergoa) boterea generoa.- 5. Entrenatzen zaudetela, neskaren bat zuen aurretik pasa nahi badu, arazorik gabe pasatzen uzten diozue? / Entrenatzen zaudetela, mutilen bat zuen aurretik pasa nahi badu, arazorik gabe pasatzen uzten diozue? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

Harremana (lidergoa) boterea generoa.- 5. Entrenatzen zaudetela, neskaren bat zuen aurretik pasa nahi badu, arazorik gabe pasatzen uzten diozue? / Entrenatzen zaudetela, mutilen bat zuen aurretik pasa nahi badu, arazorik gabe pasatzen uzten diozue? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Harremana (lidergoa) boterea generoa.- 5. Uzten al dizuete neskek kaletik tira egiten?/ Uzten al dizuete mutilek kaletik tira egiten? (ET-N-1.taldea)

Harremana (lidergoa) boterea generoa.- 5. Uzten al dizuete neskek kaletik tira egiten?/ Uzten al dizuete mutilek kaletik tira egiten? (ET-M-2.taldea)

Harremana (lidergoa) boterea generoa.- 5. Uzten al dizuete neskek kaletik tira egiten?/ Uzten al dizuete mutilek kaletik tira egiten? (ET-M-4.taldea)

Harremana (lidergoa) boterea.- 5. Uzten al dizuete neskek kaletik tira egiten?/ Uzten al dizuete mutilek kaletik tira egiten? (ET-N-3.taldea)

Harremana lidergoa generoa.- 1. Nortzuk dira klubeko liderrak? (ET-N-3.taldea)

Harremana lidergoa generoa.- 1. Nortzuk dira klubeko liderrak? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Harremana lidergoa generoa.- 1. Nortzuk dira klubeko liderrak? (ET-M-2.taldea)

Harremana lidergoa generoa.- 1. Nortzuk dira klubeko liderrak? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

Harremana lidergoa generoa.- 1. Nortzuk dira klubeko liderrak? (ET-N-1.taldea)

Harremana lidergoa generoa.- 1. Nortzuk dira klubeko liderrak? (ET-M-4.taldea)

Harremanak genero diskriminazioa.- 10. Inoiz sentitu al zara diskriminatuta taldean edo klubaren jardueraren batean? Zergatik? Neska edo mutila izateagatik izan liteke? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

Harremanak genero diskriminazioa.- 10. Inoiz sentitu al zara diskriminatuta taldean edo klubaren jardueraren batean? Zergatik? Neska edo mutila izateagatik izan liteke? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Harremanak genero diskriminazioa.- 10. Noizbaiten taldean edo klubeko jardura batean diskriminatua sentitu zara? Zergatik? Neska ala mutila izateagatik izan zitekeen? (ET-N-1.taldea)

Harremanak genero diskriminazioa.- 10. Noizbaiten taldean edo klubeko jardura batean diskriminatua sentitu zara? Zergatik? Neska ala mutila izateagatik izan zitekeen? (ET-M-2.taldea)

Harremanak genero diskriminazioa.- 10. Noizbaiten taldean edo klubeko jardura batean diskriminatua sentitu zara? Zergatik? Neska ala mutila izateagatik izan zitekeen? (ET-N-3.taldea)

Harremanak genero diskriminazioa.- 10. Noizbaiten taldean edo klubeko jardura batean diskriminatua sentitu zara? Zergatik? Neska ala mutila izateagatik izan zitekeen? (ET-M-4.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 7. DENON ARTEAN esan izadazue irabazteko errelebo bat osatzeko 4 izen: zergatik haiek? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 7. Esaidazue 4 izen, zeinekin irabazteko errelebo bat osatuko zenuketen: (ET-N-1.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 7. Esaidazue 4 izen, zeinekin irabazteko errelebo bat osatuko zenuketen: (ET-M-2.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 7. Esaidazue 4 izen, zeinekin irabazteko errelebo bat osatuko zenuketen: (ET-N-3.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 7. Esaidazue 4 izen, zeinekin irabazteko errelebo bat osatuko zenuketen: (ET-M-4.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 8. Oro har neskak azkarragoak direla uste duzue? Edo mutilak? Orduan, zergatik aukeratu dituzu aurreko kide horiek? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 8. Oro har neskak azkarragoak direla uste duzue? Edo mutilak? Orduan, zergatik aukeratu dituzu aurreko kide horiek? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 8. Orokorrean neskak azkarragoak direla uste duzu? Ala mutilak? Orduan zergatik aukeratu dituzu aurreko kide horiek?. (ET-N-1.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 8. Orokorrean neskak azkarragoak direla uste duzu? Ala mutilak? Orduan zergatik aukeratu dituzu aurreko kide horiek? (ET-M-2.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 8. Orokorrean neskak azkarragoak direla uste duzu? Ala mutilak? Orduan zergatik aukeratu dituzu aurreko kide horiek? (ET-N-3.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna estereotipoen indarra errelebo mota.- 8. Orokorrean neskak azkarragoak direla uste duzu? Ala mutilak? Orduan zergatik aukeratu dituzu aurreko kide horiek? (ET-M-4.taldea)

Lehiaketarako eraginkortasuna, estereotipoen indarra errelebo mota.- 7. DENON ARTEAN esaniezadazue irabazteko errelebo bat osatzeko 4 izen: zergatik haiek? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

OGF abiadura.- 2. Nortzuk joan behar dira lehenengoak kale bakoitzean? (ET-N-1.taldea)

OGF abiadura.- 2. Nortzuk joan behar dira lehenengoak kale bakoitzean? (ET-M-2.taldea)

OGF abiadura.- 2. Nortzuk joan behar dira lehenengoak kale bakoitzean? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

OGF abiadura.- 2. Nortzuk joan behar dira lehenengoak kale bakoitzean? (ET-N-3.taldea)

OGF abiadura.- 2. Nortzuk joan behar dira lehenengoak kale bakoitzean?. (ET-M-4.taldea)

OGF abiadura.- 2. Nortzuk joan behar dira lehenengoak kale bakoitzean? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

OGF abiadura.- 3. Nortzuk dira azkarragoak zuen taldean? Neskak ala mutilak? (ET-N-1.taldea)

OGF abiadura.- 3. Nortzuk dira azkarragoak zuen taldean? Neskak ala mutilak? (ET-M-2.taldea)

OGF abiadura.- 3. Nortzuk dira azkarragoak zuen taldean? Neskak ala mutilak? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

OGF abiadura.- 3. Nortzuk dira azkarragoak zuen taldean? Neskak ala mutilak? (ET-N-3.taldea)

OGF abiadura.- 3. Nortzuk dira azkarragoak zuen taldean? Neskak ala mutilak? (ET-M-4.taldea)

OGF abiadura.- 3. Nortzuk dira azkarragoak zuen taldean? Neskak ala mutilak? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)

OGF indarra.- 4. Eta indartsuagoak? (ET-M-2.taldea)

OGF indarra.- 4. Eta indartsuagoak? (ET-M-4.taldea)

OGF indarra.- 4. Eta indartsuagoak? (ET-N-1.taldea)

OGF indarra.- 4. Eta indartsuagoak? (ET-N-3.taldea)

OGF indarra.- 4. Eta indartsuagoak? (EZT-NM-1.eta 2. taldea)

OGF indarra.- 4. Eta indartsuagoak? (EZT-NM-3.eta 4. taldea)